

# HEZKUNTZA EZ DAGO SALGAI II

---

## Erreskatea



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

# HEZKUNTZA EZ DAGO SALGAI II

---

## Erreskatea



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

### Araba

Manuel Iradier 40  
01005 **Gasteiz**

☎ 945 141 104  
[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

### Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk.  
48013 **Bilbo**

☎ 944 100 298  
[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

### Gipuzkoa

Castilla kalea 16-18, behe  
20015 **Donostia**

☎ 943 466 000  
[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)

### Nafarroa

Joakin Beuntza 4-6, behe  
31014 **Iruñea**

☎ 948 212 355  
[nafarroa@steilas.eus](mailto:nafarroa@steilas.eus)



# Aurkibidea

|           |                                                            |           |
|-----------|------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1.</b> | <b>Sarrera</b>                                             | <b>4</b>  |
| <b>2.</b> | <b>Testuingurua</b>                                        | <b>5</b>  |
| <b>3.</b> | <b>Matrikularen bilakaera 2003-2024</b>                    | <b>6</b>  |
|           | a. Haur Hezkuntza 1. zikloa. 2 urteko gelak                | 7         |
|           | b. Haur Hezkuntza 2. zikloa                                | 9         |
|           | c. Lehen Hezkuntza                                         | 11        |
|           | d. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza                        | 13        |
|           | e. Batxilergoa                                             | 15        |
|           | f. 2024-2025 ikasturterako matrikula eskaria               | 18        |
| <b>4.</b> | <b>Itunpeko ikastetxeen erreskatea</b>                     | <b>22</b> |
|           | a. Ituntzeko gutxieneko ratioen jaitsiera                  | 22        |
|           | b. Modulu ekonomikoaren igoera                             | 23        |
|           | c. 2 urteko gelen ituntzea                                 | 24        |
|           | d. Pribatuen finantzaketaren igoera                        | 25        |
| <b>5.</b> | <b>Hezkuntza sailaren ez-neurriak</b>                      | <b>28</b> |
|           | a. Zaurgarrien banaketa                                    | 28        |
|           | b. Hurbiltasuneko eskolatzea                               | 30        |
|           | c. Eragin eremuak                                          | 31        |
|           | d. Gaineskaintzaren aurkako neurriak                       | 33        |
| <b>6.</b> | <b>Itunak arautzen dituen 1987ko dekretuaren urraketak</b> | <b>37</b> |
| <b>7.</b> | <b>Bibliografia</b>                                        | <b>41</b> |





## 1. Sarrera

Europa osoan hezkuntza pribatua hezkuntza sistemaren %10 baino handiagoa nekez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan %49koa da; Belgikak bakarrik gainditzen du gure pribatizazio maila. Anomalia hori 80ko hamarkadatik aurrera finkatu zen; frankismoaren amaieran, eliza katolikoak hezkuntza-eremuan zuen esku-sartzea betikotzea lortu zuen, haien ikastetxeak itunduz. Horri gehitu behar zaio eskolatze-behar handiagoak zeudela, batetik jaiotza-tasa handitu zelako eta bestetik eskolatze-aldia zabaldu zelako haur eta derrigorrezko bigarren etapetan. Funts publikoekin sostengatutako sare dualetik, hau da, publikoa eta itunpeko pribatutik asetuko da behar hau. Eliz maniobra horren pean beste ikastetxe batzuk ere itunduko dira.

Gaur-gaurkoz, egoera demografikoa erabat kontrakoa da. Agirian azaltzen den moduan, jaiotza tasa %36 murriztu da azken 12 urteotan, eta etorkizuneko aurreikuspenak ere ez dira oso itxaropentsuak. Hori dela eta, ikastetxeak soberan daude, eta batzuk itxi egin beharko dira. Orain, galdera da zein itxiko diren: hezkuntzaren eskubide unibertsalari erantzuten dioten ikastetxe publikoak ala negozioa diren ikastetxe pribatuak?

Badirudi Eusko Jaurlaritzak argi daukala, eta, horregatik, 2023ko abenduaren 21ean hezkuntza lege bat onartu zuen sare publikoa eta pribatua parekatzen dituen. Lege horrekin batera, bi dekretu aldatu zituen, onarpenarena eta plangintzarena. Bada, dekretu horiek zuzenean eragiten diote Euskal Eskola Publikoari eta pribaturako erreskatea aktibatzen dute. Agiri honek erreskate hori nola egiten den aletu nahi du; izan ere, gaur egun bi sareak ikasleengatik borrokatzera hurbiltzen ari dira, merkatu librearen logika batean, non merkantzia ikasleak diren eta finantzaketa publikoa den bi kasuetan.

Beherakada demografikoa kontuan hartuta, ikastetxe pribatuen hezkuntza eskaintza mugatu beharko litzateke, zerbitzu publikoa, hau da, Euskal Eskola Publikoa izan dadin gure hezkuntza sistemaren ardatza. Aldiz, gaur egun, ikastetxe pribatuen gehiegizko eskaintzak herrietako jaiotza tasaren indizea gainditzen du batzuetan. Jakina, gehiegizko eskaintza hori ikasleak lekualdatuz soilik estal daiteke; eta hori, bereizketa sortzeaz gain, ez da oso onuragarria ingurumenerako. Adibidez, helburu horrekin iristen dira Loiura 135 autobus egunean; izan ere, urtean 11 haur jaiotzen diren udalerrri horretan 318 plaza eskaintzen dira.

Ez dago azaldu beharrik zer arrazoi duten familia horiek Loiuko ikastetxe elitistetara joateko. Badirudi inork ez duela ulertzen gure erkidegoaren etorkizuna batzuek nahi luketena baino askoz ere anitzagoa izango dela; hona hemen datu bat: EAEn urtean jaiotzen diren haurren %30ek migratutako gurasoak dituzte.

Agerikoa da kohesionatua den, euskaraz hitz egingo duen, espazio eta bizipenak partekatuko dituen eta komunitatea sortuko duen gizarte baten alde lan egiteko modu bakarra Euskal Eskola Publikoa dela, guztiona eta guztiontzat den bakarra.

## 2. Testuingurua



Txosten honek jasotzen dituen egoera gehienak ulertzeko hurrengo datu hauek duten garrantziaz jabetu behar gara.

### 1. Jaiotza tasaren jaitsiera

Azken hiru hamarkadetako jaiotza tasak 2011n goia jo zuen EAEn 21.180 jaiotzekin. Ordutik hona jaiotzek beherantz egin dute, eta ditugun azken datuek, 2023 urtekoek, 13.421 haur jaio direla esaten digute, hau da, 2011ean baino %36,63 gutxiago. Hiru lurraldeek izan duten beherakada orekatua izan den arren, Bizkaia izan da galera handiena izan duena %37,80arekin.

Jaiotzak 2011-2023

|      | Araba   | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE     |
|------|---------|---------|----------|---------|
| 2011 | 3.429   | 10.687  | 7.064    | 21.180  |
| 2023 | 2.214   | 6.647   | 4.560    | 13.421  |
|      | %-35.43 | %-37.80 | %-35.45  | %-36.63 |

Jaiotza tasaren jaitsiera 2011-2023.

### 2. Migratutako familien haurren gorakada


Beheko taulak, 1996tik 2023 urte arte, migratutako familien jaiotzen eboluzioa jasotzen du. Ehunekoa, denboraldi horretan, EAEn %2 inguru izatetik %32,14 izatera pasatu da. Aipagarria da 2023an Araban jaiotako haurren %40,70aren amak migratuak izatea.

|          | 1996  | 2000  | 2005   | 2011   | 2017   | 2023   |
|----------|-------|-------|--------|--------|--------|--------|
| EAE      | %1,91 | %2,86 | %7,77  | %16,19 | %22,31 | %32,14 |
| Araba    | %2,67 | %4,58 | %11,57 | %23,39 | %29,79 | %40,70 |
| Bizkaia  | %1,62 | %2,73 | %8,08  | %15,59 | %20,10 | %29,79 |
| Gipuzkoa | %2,02 | %2,35 | %5,73  | %13,60 | %21,72 | %31,40 |

Migratutako familien jaiotzen eboluzioa 1996-2023.

### 3. Hezkuntza politika

EAJk bereziki hezkuntza arloan publikoarekiko duten **mespretxua** eta EAEn urteetan ehundutako **sare klientelarrak** mantentzeko eta indartzeko estrategia.



### 3. Matrikularen bilakaera 2003-2024

EAEn, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorainoko azken 20 urteetako matrikulari erreparatzen badiogu, eta pribatuko matrikula hezkuntza publikoko matrikularekin alderatzen badugu, ehunekoetan 5,7 puntu gainera egotetik 0,5 puntu azpitik egotera pasatu dela ondorioztatu dezakegu. Etapaz etapa aztertzen badugu, duela 20 urte itunpeko ikastetxeek matrikula gehiago zuten etapa guztietan, baina gaurko egunez HH eta LHn ikastetxe publikoetan ikasle gehiago matrikulatzen dira, eta inertiak jarraitzen badu urte gutxi barru DBHn ere berdina gertatuko da. Batxilergoa izan da matrikulazioan kontrako bidea izan duena, eta tendentzia irauliz gaur egun pribatuko matrikula handiagoa da. Hala ere, fenomeno hauen zergatiak etapaka egin dugun azterketetan hobeto ikusten dira.

| HH+LH+<br>DBH+BATX | Guztira  |        | Publiko  |       |       | Pribatu  |       |       |
|--------------------|----------|--------|----------|-------|-------|----------|-------|-------|
|                    | Ikasleak | Gelak  | Ikasleak | %     | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak |
| 2003-2004          | 271.561  | 13.904 | 128.067  | 47,16 | 7.225 | 143.494  | 52,84 | 6.679 |
| 2004-2005          | 276.687  | 14.333 | 133.230  | 48,15 | 7.591 | 143.457  | 51,85 | 6.742 |
| 2005-2006          | 281.710  | 14.674 | 135.675  | 48,16 | 7.733 | 146.035  | 51,84 | 6.941 |
| 2006-2007          | 287.368  | 14.938 | 139.695  | 48,61 | 7.920 | 147.673  | 51,39 | 7.018 |
| 2007-2008          | 292.938  | 15.174 | 143.498  | 48,99 | 8.098 | 149.440  | 51,01 | 7.076 |
| 2008-2009          | 298.942  | 15.465 | 146.908  | 49,14 | 8.283 | 152.034  | 50,86 | 7.182 |
| 2009-2010          | 304.198  | 15.670 | 150.521  | 49,48 | 8.434 | 153.677  | 50,52 | 7.236 |
| 2010-2011          | 311.119  | 15.883 | 155.389  | 49,95 | 8.618 | 155.730  | 50,05 | 7.265 |
| 2011-2012          | 317.604  | 16.052 | 159.368  | 50,18 | 8.726 | 158.236  | 49,82 | 7.326 |
| 2012-2013          | 321.897  | 15.971 | 161.522  | 50,18 | 8.643 | 160.375  | 49,82 | 7.328 |
| 2013-2014          | 325.100  | 15.969 | 163.524  | 50,30 | 8.673 | 161.576  | 49,70 | 7.296 |
| 2014-2015          | 328.114  | 16.038 | 165.351  | 50,39 | 8.723 | 162.763  | 49,61 | 7.315 |
| 2015-2016          | 330.348  | 16.182 | 166.501  | 50,40 | 8.815 | 163.847  | 49,60 | 7.322 |
| 2016-2017          | 331.330  | 16.187 | 166.774  | 50,33 | 8.830 | 164.556  | 49,67 | 7.357 |
| 2017-2018          | 332.540  | 16.161 | 167.049  | 50,23 | 8.791 | 165.491  | 49,77 | 7.370 |
| 2018-2019          | 332.476  | 16.229 | 166.460  | 50,07 | 8.821 | 166.016  | 49,93 | 7.408 |
| 2019-2020          | 331.874  | 16.266 | 166.743  | 50,24 | 8.888 | 165.131  | 49,76 | 7.378 |
| 2020-2021          | 326.355  | 16.156 | 164.063  | 50,27 | 8.807 | 162.292  | 49,73 | 7.349 |
| 2021-2022          | 321.129  | 16.119 | 162.026  | 50,46 | 8.794 | 159.103  | 49,54 | 7.325 |
| 2022-2023          | 318.074  | 16.036 | 160.649  | 50,51 | 8.745 | 157.425  | 49,49 | 7.291 |
| 2023-2024          | 313.714  | 16.061 | 159.396  | 50,81 | 8.975 | 154.318  | 49,19 | 7.086 |

Matrikularen eboluzioa 2003-2024 HHTik BATXlra.

EAEko hezkuntza, duela 25 urte existitzen ez zen aldagai berri batekin topatu da: etorkinak eta hauen ondorengoekin. 1994-1995 urtean erkidegoko ikasle etorkinen kopurua %0,55koa zen eta familiengan ez zuen inongo eraginik ikastetxea aukeratzeko orduan. 2020-2021 ikasturtean, 2-18 urte bitartean, migratutako familien ondorengo 27.527 ikasle genituen eta ikasleriaren %9,08a suposatzen zuen. Sareen arteko ikasle hauen banaketa ez da modu orekatuan ematen eta ikastetxe publikoek hauen %67,5a jasotzen dute eta itunpekoek soilik %32,5a. Hala ere, hasierako etapetara jotzen badugu, HH eta LH, arrakala hau oraindik eta handiagoa da. Ikasle zaurgarri hauen eskolatzeak fenomeno desorekatzaile berri bat ekarri digu: langile klaseko familien arteko bereizketa.

| HH2 + LH + DBH + BATX    | 1994-1995    | %      | 1999-2000    | %      | 2003-2004    | %      | 2014-2015    | %      | 2020-2021    | %      |
|--------------------------|--------------|--------|--------------|--------|--------------|--------|--------------|--------|--------------|--------|
| <b>Ikasleak</b>          |              |        |              |        |              |        |              |        |              |        |
| Publikoa                 | 173.391      | 49,38  | 129.302      | 46,85  | 120.029      | 47,03  | 149.330      | 50,15  | 151.803      | 50,05  |
| Pribatua                 | 177.729      | 50,62  | 146.687      | 53,15  | 135.188      | 52,97  | 148.411      | 49,85  | 151.479      | 49,95  |
| Guztira                  | 351.120      | 100,00 | 275.989      | 100,00 | 255.217      | 100,00 | 297.741      | 100,00 | 303.282      | 100,00 |
| <b>Jatorri atzeritar</b> |              |        |              |        |              |        |              |        |              |        |
| Publikoa                 | 1.398        | 0,81   | 2.079        | 1,61   | 5.592        | 4,66   | 15.469       | 10,36  | 18.581       | 12,24  |
| Pribatua                 | 544          | 0,31   | 808          | 0,55   | 2.396        | 1,77   | 6.090        | 4,10   | 8.946        | 5,91   |
| Guztira                  | 1.942        | 0,55   | 2.887        | 1,05   | 7.988        | 3,13   | 21.559       | 7,24   | 27.527       | 9,08   |
| <b>% Publikoa</b>        | <b>71,99</b> |        | <b>72,01</b> |        | <b>70,01</b> |        | <b>71,75</b> |        | <b>67,50</b> |        |

Migratutako familietako ikasleen eboluzioa 1994-2021 HHtik BATXlra.

## a. Haur Hezkuntza 1. zikloa. 2 urteko gelak

2002an, EAEn, 0-3 urte bitarteko hurrei tipologia eta baldintza anitzeko zentroetan eskaintzen zitzairen hezkuntza-arreta: udalaren haur eskolak, haurtzaindegi pribatuak, irabazi-asmorik gabeko erakundeek mende haurtzaindegiak... Guzti hau kudeatu eta arautzeko, 2002ko abenduaren 17an, M<sup>a</sup> Angeles Iztueta Azkue buru zuen Hezkuntza Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren eskolatzea arautzen zuen dekretua abian jarri zuen. Dekretu honen zioa, haurraren garapen integrala sustatzea, ekitatea eta berdintasuna bultzatzea, elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak ahalbidetzea, familia eta lana bateragarri egitea eta landa eremuetan hezkuntza zerbitzua bermatzea zen. Haur eskola Partzuergoaren sorrera ere data hauetan ematen da.

Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoan zero-hiru urte bitarteko haurrentzako Haur Eskola guztietako zen, zentroen titulartasuna edozein izanik ere. Etapa hau eskaintzen ez zuten ikastetxe pribatuak baimen administratiboa aldatu behar izan zuten 0-3 eskaini ahal izateko. Han hasi zen 0-3 zikloaren birmoldaketa sare pribatuan: Haur-Lehen hezkuntzako ikastetxeekin lotu ziren gehienak, gutxi batzuk geratu ziren solte.

Ondoren, 2003ko uztailaren 30eko agindua atera zen, honen xedea, martxan zeuden EAEko 0-3 urte bitarteko titulartasun pribatuko Haur Eskolei diru-laguntza ematea izan zen, aurrekontua 5.726.484 eurora mugatuz. Gaur egun, laguntza hori 26,5 milioi eurokoa da,

lehenengo aurrekontu hura baino bost aldiz handiagoa. Udaletxeenak diren (baina orokorrean kudeaketa pribatua duten) haur eskolek ere 3,5 milioi jasotzen dute urtero. Beraz, guztira urtero 30 milioi euro ekimen pribatuaren esku.

Diru sarrera hauek berrmatuta, itunpeko ikastetxeek, kasu askotan, Haurreskolak Partzuergoak baino matrikula merkeagoa eskaini ahal izan dute. Nahiz eta ikastetxe hauek etapa honetan diru galera onartu, bezeroak erakartzen dituzte, eta hauek ikasketa ibilbidea bertan mugitu gabe egin ohi dutenez, denbora badute galera horri buelta emateko.

Nahiz eta itunpeko ikastetxeek diru uholde hau jaso, 2 urteko gelako 2003-2024ko matrikulazio taula begiratzen badugu, Eskola Publikoan matrikulatzen diren ikasleen portzentajeak gora egin duela ikusten dugu itunpekoekin alderatuz. 2005 urtetik aurrera jasotako datuak dira esanguratsuak, 2003-2005 ikasturteetan 0-3 etaparen arautzearen hasieran kokatzen baikara.

| HH 1 zikloa<br>2 urteko gela | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|------------------------------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|                              | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2003-2004                    | 16.344   | 1.169 | 8.038    | 49,18 | 570   | 14,10  | 8.306    | 50,82 | 599   | 13,87  |
| 2004-2005                    | 22.119   | 1.668 | 12.368   | 55,92 | 954   | 12,96  | 9.751    | 44,08 | 714   | 13,66  |
| 2005-2006                    | 25.687   | 1.944 | 13.425   | 52,26 | 1.044 | 12,86  | 12.262   | 47,74 | 900   | 13,62  |
| 2006-2007                    | 27.429   | 2.120 | 14.508   | 52,89 | 1.158 | 12,53  | 12.921   | 47,11 | 962   | 13,43  |
| 2007-2008                    | 28.333   | 2.197 | 15.211   | 53,69 | 1.218 | 12,49  | 13.122   | 46,31 | 979   | 13,40  |
| 2008-2009                    | 29.927   | 2.345 | 15.921   | 53,20 | 1.284 | 12,40  | 14.006   | 46,80 | 1.061 | 13,20  |
| 2009-2010                    | 30.821   | 2.410 | 16.377   | 53,14 | 1.317 | 12,44  | 14.444   | 46,86 | 1.093 | 13,22  |
| 2010-2011                    | 31.842   | 2.483 | 17.042   | 53,52 | 1.372 | 12,42  | 14.800   | 46,48 | 1.111 | 13,32  |
| 2011-2012                    | 32.299   | 2.536 | 17.247   | 53,40 | 1.394 | 12,37  | 15.052   | 46,60 | 1.142 | 13,18  |
| 2012-2013                    | 32.335   | 2.526 | 17.245   | 53,33 | 1.373 | 12,56  | 15.090   | 46,67 | 1.153 | 13,09  |
| 2013-2014                    | 31.310   | 2.446 | 16.494   | 52,68 | 1.315 | 12,54  | 14.816   | 47,32 | 1.131 | 13,10  |
| 2014-2015                    | 30.373   | 2.422 | 16.021   | 52,75 | 1.303 | 12,30  | 14.352   | 47,25 | 1.119 | 12,83  |
| 2015-2016                    | 29.515   | 2.472 | 15.596   | 52,84 | 1.326 | 11,76  | 13.919   | 47,16 | 1.101 | 12,64  |
| 2016-2017                    | 29.269   | 2.432 | 15.447   | 52,78 | 1.316 | 11,74  | 13.822   | 47,22 | 1.116 | 12,39  |
| 2017-2018                    | 28.709   | 2.401 | 15.134   | 52,72 | 1.302 | 11,62  | 13.575   | 47,28 | 1.099 | 12,35  |
| 2018-2019                    | 27.846   | 2.367 | 14.510   | 52,11 | 1.265 | 11,47  | 13.336   | 47,89 | 1.102 | 12,10  |
| 2019-2020                    | 26.822   | 2.345 | 14.310   | 53,35 | 1.269 | 11,28  | 12.512   | 46,65 | 1.076 | 11,63  |
| 2020-2021                    | 23.073   | 2.205 | 12.260   | 53,14 | 1.182 | 10,37  | 10.813   | 46,86 | 1.023 | 10,57  |
| 2021-2022                    | 23.444   | 2.198 | 12.674   | 54,06 | 1.182 | 10,72  | 10.770   | 45,94 | 1.016 | 10,60  |
| 2022-2023                    | 23.302   | 2.184 | 12.502   | 53,65 | 1.175 | 10,64  | 10.800   | 46,35 | 1.009 | 10,70  |
| 2023-2024                    | 23.229   | 2.118 | 12.674   | 54,56 | 1.192 | 10,63  | 10.555   | 45,44 | 926   | 11,40  |

Matrikularen eboluzioa 2003-2024 2 urteko gela.



Matrikulazioak oro har 2012-2013 ikasturtean goia jo zuen, guztira 32.335 ikasleekin. Ordutik hona, 9.106 matrikula galdu dira, %28,16a. Bi sareetan izandako galera handia izan arren, itunpeko ikastetxeak izan dira portzentajeetan galera handiena pairatu dutenak, %30,05arekin.

|           | Guztira  |       | Publiko  |       |       | Pribatu  |       |       |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|----------|-------|-------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak |
| 2012-2013 | 32.335   | 2.526 | 17.245   | 53,33 | 1.373 | 15.090   | 46,67 | 1.153 |
| 2023-2024 | 23.229   | 2.118 | 12.674   | 54,56 | 1.192 | 10.555   | 45,44 | 926   |
|           | -9.106   | -408  | -4.571   |       | -181  | -4.535   |       | -227  |
|           | -%28,16  |       | -%26,51  |       |       | -%30,05  |       |       |

Ikasle eta gelen eboluzioa 2012-2024 2 urteko gela.

Hala ere badirudi joera honek behea jo duela, azken lau urte hauetan 2 urteko geletako matrikula 23.000 inguruan mantendu baita.

## b. Haur Hezkuntza 2. zikloa

Haur Hezkuntzako 2. zikloaz hitz egitean, erabat diruz hornitutako ziklo batez hitz egiten ari gara. 2003an itundutako gela bakoitzeko jasotzen zuten diru kopurua 44.174,22 eurokoa bazen, gaur egun 79.573,41 eurokoa da, azken 21 urteetako igoera %80,14koa izanik. Azken 21 urte hauetako KPlaren igoera %60,8 izanik, ia 20 puntuko tarteia izan dute itunpeko ikastetxeek doakotasunaren bidea jorratzeko, baina halakorik ez da gertatu.

**Haur Hezkuntzako 2. zikloko azken 20 urte hauetako matrikularen eboluzioa ikusten badugu, eskola publikoak %49,59ko matrikula izatetik %53,55 izatera pasatu da.** Igoera honen zergatia ikastetxe publikoek, itundutakoekin alderatuz, jasotzen duten migratutako familietako ikasle kopuru handian dago. Egoera hau Lehen Hezkuntzan era nabarmenagoan ematen denez, etapa horretan egingo dugu honen inguruko azterketa kuantitatiboa.

| HH<br>2 zikloa | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|----------------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|                | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2003-2004      | 51.679   | 2.714 | 25.630   | 49,59 | 1.500 | 17,09  | 26.049   | 50,41 | 1.214 | 21,46  |
| 2004-2005      | 53.425   | 2.760 | 26.584   | 49,76 | 1.532 | 17,35  | 26.841   | 50,24 | 1.228 | 21,86  |
| 2005-2006      | 54.798   | 2.791 | 27.233   | 49,70 | 1.538 | 17,71  | 27.565   | 50,30 | 1.253 | 22,00  |
| 2006-2007      | 56.628   | 2.846 | 28.158   | 49,72 | 1.569 | 17,95  | 28.470   | 50,28 | 1.277 | 22,29  |
| 2007-2008      | 58.838   | 2.915 | 29.232   | 49,68 | 1.607 | 18,19  | 29.606   | 50,32 | 1.308 | 22,63  |
| 2008-2009      | 60.472   | 2.982 | 30.131   | 49,83 | 1.656 | 18,20  | 30.341   | 50,17 | 1.326 | 22,88  |
| 2009-2010      | 61.172   | 3.026 | 30.765   | 50,29 | 1.693 | 18,17  | 30.407   | 49,71 | 1.333 | 22,81  |
| 2010-2011      | 61.907   | 3.042 | 31.559   | 50,98 | 1.713 | 18,42  | 30.348   | 49,02 | 1.329 | 22,84  |
| 2011-2012      | 63.264   | 3.072 | 32.773   | 51,80 | 1.749 | 18,74  | 30.491   | 48,20 | 1.323 | 23,05  |
| 2012-2013      | 63.545   | 3.070 | 33.166   | 52,19 | 1.756 | 18,89  | 30.379   | 47,81 | 1.314 | 23,12  |
| 2013-2014      | 63.898   | 3.065 | 33.431   | 52,32 | 1.758 | 19,02  | 30.467   | 47,68 | 1.307 | 23,31  |
| 2014-2015      | 63.432   | 3.044 | 33.116   | 52,21 | 1.734 | 19,10  | 30.316   | 47,79 | 1.310 | 23,14  |
| 2015-2016      | 63.086   | 3.024 | 32.802   | 52,00 | 1.715 | 19,13  | 30.284   | 48,00 | 1.309 | 23,14  |
| 2016-2017      | 60.980   | 2.984 | 31.673   | 51,94 | 1.688 | 18,76  | 29.307   | 48,06 | 1.296 | 22,61  |
| 2017-2018      | 59.482   | 2.955 | 30.787   | 51,76 | 1.664 | 18,50  | 28.695   | 48,24 | 1.291 | 22,23  |
| 2018-2019      | 58.112   | 2.896 | 30.043   | 51,70 | 1.616 | 18,59  | 28.069   | 48,30 | 1.280 | 21,93  |
| 2019-2020      | 57.505   | 2.889 | 29.873   | 51,95 | 1.620 | 18,44  | 27.632   | 48,05 | 1.269 | 21,77  |
| 2020-2021      | 54.972   | 2.834 | 28.746   | 52,29 | 1.577 | 18,23  | 26.226   | 47,71 | 1.257 | 20,86  |
| 2021-2022      | 51.879   | 2.762 | 27.240   | 52,51 | 1.531 | 17,79  | 24.639   | 47,49 | 1.231 | 20,02  |
| 2022-2023      | 49.268   | 2.693 | 26.205   | 53,19 | 1.492 | 17,56  | 23.063   | 46,81 | 1.201 | 19,20  |
| 2023-2024      | 47.098   | 2.666 | 25.222   | 53,55 | 1.560 | 16,17  | 21.876   | 46,45 | 1.106 | 19,78  |

Matrikularen eboluzioa 2003-2024 HH 2. zikloa.

Haur Hezkuntzako matrikulazioak 2013-2014 ikasturtean goia jo zuen guztira 63.898 ikasleekin. Orduetik hona, 16.800 matrikula galdu dira, %26,29a. Bi sareetan izandako galera handia izan arren, itunpeko ikastetxeek izan dutena handiagoa izan da bai portzentaje aldetik baita zenbaki absolutuetan.

|           | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2013-2014 | 63.898   | 3.065 | 33.431   | 52,32 | 1.758 | 19,02  | 30.467   | 47,68 | 1.307 | 23,31  |
| 2023-2024 | 47.098   | 2.666 | 25.222   | 53,55 | 1.560 | 16,17  | 21.876   | 46,45 | 1.106 | 19,78  |
|           | -16.800  | -399  | -8.209   |       | -198  |        | -8.591   |       | -201  |        |
|           | -%26,29  |       | -%24,56  |       |       |        | -%28,20  |       |       |        |

Ikasle eta gelen eboluzioa 2012-2024 HH 2. zikloa.

## c. Lehen Hezkuntza

2003an itundutako gela bakoitzeko jasotzen zuten diru kopurua 46.797,96 eurokoa bazen, gaur egun 83.351,32 eurokoa da, azken 21 urteetako igoera %78,11koa izanik.

**Lehen Hezkuntzako azken 21 urte hauetako matrikularen eboluzioa ikusten badugu, eskola publikoak %47,21eko matrikula izatetik %52,04 izatera pasatu da.** Haur Hezkuntzan gertatu bezala, igoera honen zergatia ikastetxe publikoek, itundutakoekin alderatuz, jasotzen duten migratutako familietako ikasle kopuru handian dago.

| LH        | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2003-2004 | 97.908   | 5.139 | 46.224   | 47,21 | 2.740 | 16,87  | 51.684   | 52,79 | 2.399 | 21,54  |
| 2004-2005 | 98.462   | 5.143 | 47.038   | 47,77 | 2.757 | 17,06  | 51.424   | 52,23 | 2.386 | 21,55  |
| 2005-2006 | 100.418  | 5.197 | 48.573   | 48,37 | 2.812 | 17,27  | 51.845   | 51,63 | 2.385 | 21,74  |
| 2006-2007 | 103.609  | 5.264 | 50.461   | 48,70 | 2.860 | 17,64  | 53.148   | 51,30 | 2.404 | 22,11  |
| 2007-2008 | 107.007  | 5.367 | 52.647   | 49,20 | 2.938 | 17,92  | 54.360   | 50,80 | 2.429 | 22,38  |
| 2008-2009 | 109.949  | 5.456 | 54.431   | 49,51 | 3.008 | 18,10  | 55.518   | 50,49 | 2.448 | 22,68  |
| 2009-2010 | 113.207  | 5.569 | 56.456   | 49,87 | 3.089 | 18,28  | 56.751   | 50,13 | 2.480 | 22,88  |
| 2010-2011 | 117.041  | 5.706 | 58.672   | 50,13 | 3.183 | 18,43  | 58.369   | 49,87 | 2.523 | 23,13  |
| 2011-2012 | 120.284  | 5.791 | 60.398   | 50,21 | 3.228 | 18,71  | 59.886   | 49,79 | 2.563 | 23,37  |
| 2012-2013 | 122.184  | 5.814 | 61.604   | 50,42 | 3.228 | 19,08  | 60.580   | 49,58 | 2.586 | 23,43  |
| 2013-2014 | 124.280  | 5.856 | 63.085   | 50,76 | 3.267 | 19,31  | 61.195   | 49,24 | 2.589 | 23,64  |
| 2014-2015 | 126.873  | 5.928 | 64.983   | 51,22 | 3.329 | 19,52  | 61.890   | 48,78 | 2.599 | 23,81  |
| 2015-2016 | 128.093  | 5.970 | 65.897   | 51,44 | 3.362 | 19,60  | 62.196   | 48,56 | 2.608 | 23,85  |
| 2016-2017 | 129.432  | 6.002 | 66.883   | 51,67 | 3.400 | 19,67  | 62.549   | 48,33 | 2.602 | 24,04  |
| 2017-2018 | 130.489  | 6.026 | 67.713   | 51,89 | 3.422 | 19,79  | 62.776   | 48,11 | 2.604 | 24,11  |
| 2018-2019 | 130.932  | 6.037 | 67.969   | 51,91 | 3.431 | 19,81  | 62.963   | 48,09 | 2.606 | 24,16  |
| 2019-2020 | 129.920  | 6.045 | 67.416   | 51,89 | 3.443 | 19,58  | 62.504   | 48,11 | 2.602 | 24,02  |
| 2020-2021 | 128.231  | 6.026 | 66.447   | 51,82 | 3.414 | 19,46  | 61.784   | 48,18 | 2.612 | 23,65  |
| 2021-2022 | 125.833  | 6.024 | 65.222   | 51,83 | 3.420 | 19,07  | 60.611   | 48,17 | 2.604 | 23,28  |
| 2022-2023 | 124.019  | 5.964 | 64.294   | 51,84 | 3.368 | 19,09  | 59.725   | 48,16 | 2.596 | 23,01  |
| 2023-2024 | 120.721  | 5.977 | 62.824   | 52,04 | 3.425 | 18,34  | 57.897   | 47,96 | 2.552 | 22,69  |

Matrikularen eboluzioa 2003-2024 Lehen Hezkuntza.

Eta honetan, matrikulak 2018-2019 ikasturtean goia jo zuen eta ordutik hona 10.211 ikasle galdu ditu, %7,80a. HHko zifrekin alderatuz galera txikia da baina 3-4 urtetan jaiotza jaitiera bortitzaren ondorioak etapa honetara iritsiko dira. 2023-2024 ikasturtean, publikoan, langileen ordezkarien gehiengoak Hezkuntza Sailarekin adostu zuen ratio jaitzierak gelen itxierak saihestea ekarri du.

|           | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2018-2019 | 130.932  | 6.037 | 67.969   | 51,91 | 3.431 | 19,81  | 62.963   | 48,09 | 2.606 | 24,16  |
| 2023-2024 | 120.721  | 5.977 | 62.824   | 52,04 | 3.425 | 18,34  | 57.897   | 47,96 | 2.552 | 22,69  |
|           | -10.211  | -60   | -5.145   |       | -6    |        | -5.066   |       | -54   |        |
|           | -%7,80   |       | -%7,57   |       |       |        | -%8,05   |       |       |        |

Ikasle eta gelen eboluzioa 2018-2024 Lehen Hezkuntza.

### Umeak matrikulatzean, migratu ez duten familien hautua azken urte hauetan zein izan da?

2021eko Euskal Eskola Kontseiluaren txostenari erreparatzen badiogu, 2020-2021 ikasturtean, Lehen Hezkuntzan, migratutako familia zuten 8.864 ikasle ikastetxe publiko batean matrikulatu ziren, eta 3.139 itunpekoan. Migratu ez duten familien aukera berriz, duela 20 urte bezala mantentzen dela ikusten dugu, %50,5ak itunpeko ikastetxeetan matrikulatzen baititu beraien seme-alabak, etorkinen matrikulazioa sinbolikoa zen garai haietan bezala.

Etapaz guztien artean Lehen Hezkuntza izan da historikoki etorkin kopuru handiena jaso izan duena. 2020-2021 ikasturtean, sareen artean era desorekatuan, hau ere historikoki ohikoa, 12.003 etorkin matrikulatu ziren EAEn, %73,85 ikastetxe publikoetan eta %26,15 itunpekoetan. Horrek hezkuntza publikoko ikasleen matrikularen %13,34a suposatu duen bitartean, itunpekoen %5,08a izan da.

Matrikulazioan, eskola publikoak pribatuarekin alderatuz gora egin izanaren gakoa hemen egon daiteke, migratutako familietako ikasleak jasotzean eta migratu ez duten familien hautuan.

| Lehen Hezkuntza      |          | 2020-2021 | %      |
|----------------------|----------|-----------|--------|
| Ikasleak             | Publikoa | 66.447    | 51,82  |
|                      | Pribatua | 61.784    | 48,18  |
|                      | Guztira  | 128.231   | 100,00 |
| Jatorri ez atzeritar | Publikoa | 57.583    | 49,54  |
|                      | Pribatua | 58.645    | 50,46  |
|                      | Guztira  | 116.228   | 100,00 |
| Jatorri atzeritar    | Publikoa | 8.864     | 73,85  |
|                      | Pribatua | 3.139     | 26,15  |
|                      | Guztira  | 12.003    | 100,00 |

%13,34

%5,08

%9,36

Migratu duten eta migratu ez duten familietako ikasle kopurua Lehen Hezkuntzan 2020-2021.

## d. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**Eskola publikoa 2003 urtean ikasleen %41,77 jasotzetik, gaur egun %47,71ra pasatu da,** eta itunpeko matrikularekin zuen arrakala 16,46 puntutatik 4,58 jaitsi da. Joera hau, Lehen Hezkuntzan ez bezala, ezin zaio migratutako familietako ikasleei egotzi, hauek nahiko modu orekatuan matrikulatuak baitaude bi sareen artean. Publikoak, maila honetan, etorkinen %54,9 jasotzen baditu, itunpekoak %45,1a.

Joera honen zergatia Lehen Hezkuntzatik datorren ikasle kopuruan egon daiteke, duela 20 urte, LHko ikasleen %47,21a publikoan matrikulatua bazegoen, gaur egun %51,84a baita. Beste arrazoi bat, familiek publikoan matrikulatzeko hautua egin izana izan daiteke, baina hau kuantitatiboki kalkulatzerik ez dago. Ratio txikiagoak, kalitatearen bermea, doakotasuna eta beste argudio batzuk egon daitezke tarteko.

| DBH       | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2003-2004 | 72.660   | 3.550 | 30.351   | 41,77 | 1.719 | 17,66  | 42.309   | 58,23 | 1.831 | 23,11  |
| 2004-2005 | 70.503   | 3.479 | 29.810   | 42,28 | 1.674 | 17,81  | 40.693   | 57,72 | 1.805 | 22,54  |
| 2005-2006 | 69.644   | 3.480 | 29.771   | 42,75 | 1.691 | 17,61  | 39.873   | 57,25 | 1.789 | 22,29  |
| 2006-2007 | 69.043   | 3.455 | 30.083   | 43,57 | 1.681 | 17,90  | 38.960   | 56,43 | 1.774 | 21,96  |
| 2007-2008 | 68.952   | 3.464 | 30.493   | 44,22 | 1.698 | 17,96  | 38.459   | 55,78 | 1.766 | 21,78  |
| 2008-2009 | 69.070   | 3.467 | 30.834   | 44,64 | 1.708 | 18,05  | 38.236   | 55,36 | 1.759 | 21,74  |
| 2009-2010 | 69.569   | 3.470 | 31.402   | 45,14 | 1.727 | 18,18  | 38.167   | 54,86 | 1.743 | 21,90  |
| 2010-2011 | 70.637   | 3.455 | 32.183   | 45,56 | 1.736 | 18,54  | 38.454   | 54,44 | 1.719 | 22,37  |
| 2011-2012 | 72.272   | 3.477 | 33.357   | 46,15 | 1.760 | 18,95  | 38.915   | 53,85 | 1.717 | 22,66  |
| 2012-2013 | 74.046   | 3.430 | 34.097   | 46,05 | 1.723 | 19,79  | 39.949   | 53,95 | 1.707 | 23,40  |
| 2013-2014 | 75.372   | 3.478 | 34.980   | 46,41 | 1.765 | 19,82  | 40.392   | 53,59 | 1.713 | 23,58  |
| 2014-2015 | 77.193   | 3.515 | 35.860   | 46,45 | 1.784 | 20,10  | 41.333   | 53,55 | 1.731 | 23,88  |
| 2015-2016 | 79.486   | 3.599 | 36.896   | 46,42 | 1.844 | 20,01  | 42.590   | 53,58 | 1.755 | 24,27  |
| 2016-2017 | 81.401   | 3.625 | 37.799   | 46,44 | 1.849 | 20,44  | 43.602   | 53,56 | 1.776 | 24,55  |
| 2017-2018 | 83.286   | 3.635 | 38.585   | 46,33 | 1.838 | 20,99  | 44.701   | 53,67 | 1.797 | 24,88  |
| 2018-2019 | 85.161   | 3.772 | 39.311   | 46,16 | 1.945 | 20,21  | 45.850   | 53,84 | 1.827 | 25,10  |
| 2019-2020 | 86.447   | 3.811 | 40.224   | 46,53 | 1.978 | 20,34  | 46.223   | 53,47 | 1.833 | 25,22  |
| 2020-2021 | 87.410   | 3.858 | 40.842   | 46,72 | 2.017 | 20,25  | 46.568   | 53,28 | 1.841 | 25,29  |
| 2021-2022 | 87.336   | 3.882 | 41.143   | 47,11 | 2.032 | 20,25  | 46.193   | 52,89 | 1.850 | 24,97  |
| 2022-2023 | 88.855   | 3.945 | 42.131   | 47,42 | 2.086 | 20,20  | 46.724   | 52,58 | 1.859 | 25,13  |
| 2023-2024 | 89.962   | 4.037 | 42.921   | 47,71 | 2.165 | 19,82  | 47.041   | 52,29 | 1.872 | 25,13  |

Matrikularen eboluzioa 2003-2024 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Etapla honetara oraindik ez dira jaiotze tasaren jaitsierak ekarri dituen ondorioak iritsi. 2007-2008 ikasturtean behea jo zuenetik, matrikulak orokorrean %30,47ko igoera izan du. Igoera

hau desberdina izan da bi sareen artean, publikoak %40,76 matrikula gehiago jaso du eta itunpekoak %22,31.

|           | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2007-2008 | 68.952   | 3.464 | 30.493   | 44,22 | 1.698 | 17,96  | 38.459   | 55,78 | 1.766 | 21,78  |
| 2023-2024 | 89.962   | 4.037 | 42.921   | 47,71 | 2.165 | 19,82  | 47.041   | 52,29 | 1.872 | 25,13  |
|           | 21.010   | 573   | 12.428   |       | 467   |        | 8.582    |       | 106   |        |
|           | %30,47   |       | %40,76   |       |       |        | %22,31   |       |       |        |

Ikasle eta gelen eboluzioa 2007-2024 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Hala ere, LHtik DBHra pasatzean, eskola publikoak ikasleen galera zuten du urtero. Adibidez, 2020-2021 ikasturtean, LHn ikasleen %51,84 izatetik DBHn %47,71 izatera pasatzen da, 4,13 puntu "galtzen ditu". Ikastetxe publiko asko daude 12 urte arteko ibilbidea dutenak eta ikasleak DBHra salto egitean, ehuneko batek itunpekorra joatea erabakitzen du. Adibide garbienak "eskola txikiak" dira. Kontrako bidea ez da oso arrunta, hau da, itunpekotik publikora joatea, itunpekoek, 2-18 ibilbidea bermatua izan ohi baitute.

| 2020-2021 ikasturtea. Onarpen-prozesu arrunta |               |               |               |               |              |
|-----------------------------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|--------------|
| Eskaerak                                      | Guztira       | Publikoa      | Pribatua      | Guztira       | % Guztira    |
| HH 2 urte                                     | 13.785        | 7.317         | 6.227         | 13.544        | 98,30        |
| HH 3 urte                                     | 2.315         | 723           | 1.411         | 2.134         | 92,20        |
| HH 4 urte                                     | 461           | 186           | 136           | 322           | 69,80        |
| HH 5 urte                                     | 349           | 141           | 65            | 206           | 59,00        |
| LH 1. maila                                   | 1.110         | 223           | 685           | 908           | 81,80        |
| LH 2. maila                                   | 329           | 140           | 62            | 202           | 61,40        |
| LH 3. maila                                   | 361           | 105           | 56            | 161           | 44,60        |
| LH 4. maila                                   | 298           | 86            | 31            | 117           | 39,30        |
| LH 5. maila                                   | 333           | 69            | 59            | 128           | 38,40        |
| LH 6. maila                                   | 275           | 68            | 48            | 116           | 42,20        |
| DBH 1. maila                                  | 11.872        | 10.064        | 1.517         | 11.581        | 97,50        |
| DBH 2. maila                                  | 320           | 51            | 103           | 154           | 48,10        |
| DBH 3. maila                                  | 400           | 69            | 115           | 184           | 46,00        |
| DBH 4. maila                                  | 298           | 88            | 107           | 195           | 65,40        |
| <b>Guztira</b>                                | <b>32.506</b> | <b>19.330</b> | <b>10.622</b> | <b>29.952</b> | <b>92,10</b> |

Ikasleen onarpen prozesua 2020-2021.

Eskola Kontseiluko txostenetik jasotako hurrengo taulak argi erakusten du DBH1 mailan ikastetxe pribatuek jasotzen duten ikasle kopurua gainontzeko mailetan baina askoz handiagoa dela, ikasle horiek, gehienak behintzat, publikotik datozenak dira.

## e. Batxilergoa

Hau da etapa bakarra non ikastetxe publikoek, itunpekoekin alderatuz, matrikularen ehunekoa galdu duten azken 21 urteetan. **2003-2004 ikasturtean publikoak ikasleen %54,06 izatetik 2023-2024an %48,17 izatera pasatu dira** (5,89 puntuko galera).

| Batxiler. | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2003-2004 | 32.970   | 1.332 | 17.824   | 54,06 | 696   | 25,61  | 15.146   | 45,94 | 636   | 23,81  |
| 2004-2005 | 32.178   | 1.283 | 17.430   | 54,17 | 674   | 25,86  | 14.748   | 45,83 | 609   | 24,22  |
| 2005-2006 | 31.163   | 1.262 | 16.673   | 53,50 | 648   | 25,73  | 14.490   | 46,50 | 614   | 23,60  |
| 2006-2007 | 30.659   | 1.253 | 16.485   | 53,77 | 652   | 25,28  | 14.174   | 46,23 | 601   | 23,58  |
| 2007-2008 | 29.808   | 1.231 | 15.915   | 53,39 | 637   | 24,98  | 13.893   | 46,61 | 594   | 23,39  |
| 2008-2009 | 29.524   | 1.215 | 15.591   | 52,81 | 627   | 24,87  | 13.933   | 47,19 | 588   | 23,70  |
| 2009-2010 | 29.429   | 1.195 | 15.521   | 52,74 | 608   | 25,53  | 13.908   | 47,26 | 587   | 23,69  |
| 2010-2011 | 29.692   | 1.197 | 15.933   | 53,66 | 614   | 25,95  | 13.759   | 46,34 | 583   | 23,60  |
| 2011-2012 | 29.485   | 1.176 | 15.593   | 52,88 | 595   | 26,21  | 13.892   | 47,12 | 581   | 23,91  |
| 2012-2013 | 29.787   | 1.131 | 15.410   | 51,73 | 563   | 27,37  | 14.377   | 48,27 | 568   | 25,31  |
| 2013-2014 | 30.240   | 1.124 | 15.534   | 51,37 | 568   | 27,35  | 14.706   | 48,63 | 556   | 26,45  |
| 2014-2015 | 30.243   | 1.129 | 15.371   | 50,82 | 573   | 26,83  | 14.872   | 49,18 | 556   | 26,75  |
| 2015-2016 | 30.168   | 1.117 | 15.310   | 50,75 | 568   | 26,95  | 14.858   | 49,25 | 549   | 27,06  |
| 2016-2017 | 30.248   | 1.144 | 14.972   | 49,50 | 577   | 25,95  | 15.276   | 50,50 | 567   | 26,94  |
| 2017-2018 | 30.574   | 1.144 | 14.830   | 48,51 | 565   | 26,25  | 15.744   | 51,49 | 579   | 27,19  |
| 2018-2019 | 30.425   | 1.157 | 14.627   | 48,08 | 564   | 25,93  | 15.798   | 51,92 | 593   | 26,64  |
| 2019-2020 | 31.180   | 1.176 | 14.920   | 47,85 | 578   | 25,81  | 16.260   | 52,15 | 598   | 27,19  |
| 2020-2021 | 32.669   | 1.233 | 15.768   | 48,27 | 617   | 25,56  | 16.901   | 51,73 | 616   | 27,44  |
| 2021-2022 | 32.637   | 1.253 | 15.747   | 48,25 | 629   | 25,03  | 16.890   | 51,75 | 624   | 27,07  |
| 2022-2023 | 32.630   | 1.250 | 15.517   | 47,55 | 624   | 24,87  | 17.113   | 52,45 | 626   | 27,34  |
| 2023-2024 | 32.704   | 1.263 | 15.755   | 48,17 | 633   | 24,89  | 16.949   | 51,83 | 630   | 26,90  |

Matrikularen eboluzioa 2003-2024 Batxilergoa.

2009-2010 ikasturtean behea jo zuenetik, matrikulak orokorrean %11,13ko igoera izan du Batxilergoan. Igoera hau desberdina izan da bi sareen artean, publikoak %1,51 matrikula gehiago jaso duen bitartean, itunpekoak %21,87 gehiago.

|           | Guztira  |       | Publiko  |       |       |        | Pribatu  |       |       |        |
|-----------|----------|-------|----------|-------|-------|--------|----------|-------|-------|--------|
|           | Ikasleak | Gelak | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa | Ikasleak | %     | Gelak | Ratioa |
| 2009-2010 | 29.429   | 1.195 | 15.521   | 52,74 | 608   | 25,53  | 13.908   | 47,26 | 587   | 23,69  |
| 2023-2024 | 32.704   | 1.263 | 15.755   | 48,17 | 633   | 24,89  | 16.949   | 51,83 | 630   | 26,90  |
|           | 3.275    | 68    | 234      |       | 25    |        | 3.041    |       | 43    |        |
|           | %11,13   |       | %1,51    |       |       |        | %21,87   |       |       |        |

Ikasle eta gelen eboluzioa 2009-2024 Batxilergoa.

Joera honen zergatia aztertzean, bi arrazoi nagusi aurkitzen ditugu: itunpekoetan etaparen finantzaketa osoa jasotzea eta notak faltsuki puztea.

- Itunpeko ikastetxeen finantzaketari dagokionez, duela 20 urte Batxilergoa ez zegoen %100ean finantzatua eta finantzaketa osoaz gain, itun partzialak eta gehieneko partzialak zeuden. Osoan finantzatuak zeudenei, %68,90 igo zaie moduluaren zenbatekoa azken 21 urte hauetan. Gaur egun finantzaketa partziala desagertzean, itun partzialak izan zituzten ikastetxe horietan, beraien moduluek %159,85eko igoera izan dute. Hau da, 2003-2004 ikasturtean batxilergoko 4 itun partzial zituenak 204.909,40 € jasotzen zituen, egun, itundutako gela kopuru berdinatik 532.458,32 € jasoko ditu.

Itun partzialak jasotzen zituzten ikastetxeek familiei kuota kobratzeko aukera zuten, beti ere dirutan itun osoa muga izanik. Familia batzuek, kuota horiek zirela eta, seme-alabak publikoan matrikulatzen bukatzen zuten. Nahiz eta itunpekoek kuotak kobratzen jarraitu, itun osoak tarteko, lehen baino askoz merkeagoak dira eta horrek ikasleen matrikulazioan eragina izan du.


| Modulu ekonomikoa |             |                     |              |
|-------------------|-------------|---------------------|--------------|
| Batzilergoa       | Partziala   | Gehieneko Partziala | Osoa         |
| 2003-04           | 51.227,35 € | 66.201,51 €         | 78.811,32 €  |
| 2010-11           | 73.786,68 € | 88.544,04 €         | 105.409,50 € |
| 2024-25           | ***         | ***                 | 133.114,58 € |
| Δ 2003-25         | %159,85     | %101,07             | %68,90       |

Modulu ekonomikoaren eboluzioa 2003-2025 Batxilergoa.

- Batxilergoan matrikulatzean familiek gero eta gehiago begiratzen dute ikastetxea "erraza" edo "zaila" den, hau da, ikasgaiak gainditzeko erraztasunak eman eta notak puzten dituzten ala ez. Fenomeno hau jasotzen duen hainbat ikerketa daude, Errioxako Unibertsitateko Iratxe Suberviolak egindakoa adibidez. Hemen, besteak beste, notak itunpeko ikastetxeek publikoek baino askoz gehiago puzten dituztela jasotzen du. Ez gaitu harritzen, baina zifratan jasota egoteak beti pentsatu izan duguna berresten digu. Baina, aitzitik, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak egindako azterlan batek argitasun pixka bat ematen dio horri, eta erakusten du institutu publikoetan graduatutako ikasleek %63 aukera gehiago dituztela unibertsitate karreretan nota onak ateratzeko itunpeko pribatu batetik datozenek baino. Beraz, esaera zaharrak dion moduan: gaurko ogia biharko gosea.




EAE ez da kasu aparte bat. Azken 10 urte hauetan, unibertsitaterako sarbide frogan, ikastetxe publikoetako ikasleek itunpekoek baina nota hobia (2017 eta 2020an izan ezik, parekoa izan baitzen) atera dute fase orokorrean...



Fase orokorreko nota 2012-2022.

... baina ikastetxeetatik azken hauek dakarkien nota puztua medio, selektibitateko azken nota hobia ateratzen dute.



Selektibitateko azken nota 2012-2022.

Honek aurrez esandako guztia berresten du: publikokoek prestakuntza hobea dute, urtero nota onenak ateratzen dituzten ikasleak ere publikokoak dira, baina itunpekoek ikastetxetik dakarkien nota puztuaren ondorioz azken nota hobea izango dute sarrera frogan.

### f. 2024-2025 ikasturterako matrikula eskaria

2024-2025 ikasturterako egin den onarpen prozesua dekretu eta agindu berriarekin egin den bigarren urtea izan da. Lurraldeka dugun informazio-maila desberdina da, beraz zehaztasun maila ere ez da berdina izango. Bizkaia eta Gipuzkoan datu zehatzak ditugun bitartean, Arabakoak ez dira horren zehatzak. Azalpen guztiak 2 urteko gelako lehen eskarian zentratuko ditugu, hau baita itundutako lehen maila izateaz gain, ikastetxeko ibilbidea bermatzen duena.

Iaztik EAEn eskaria %4,09 jaitsi bada ere, lurraldeen artean aldea dago, Araban eskariak %11,10 behera egin duen bitartean, Bizkaian %0,99 gora egin baitu. Lurraldeka lanketa zehatzagoa egingo dugu.

| EAE                | Eskaria 1. aukera |               | Δ 2023-2025 |              |
|--------------------|-------------------|---------------|-------------|--------------|
|                    | 2023-2024         | 2024-2025     | Kopurua     | %            |
| Araba              | 2.036             | 1.810         | -226        | -11,10       |
| Bizkaia            | 5.855             | 5.913         | 58          | 0,99         |
| Gipuzkoa           | 4.513             | 4.174         | -339        | -7,51        |
| <b>Guztira EAE</b> | <b>12.404</b>     | <b>11.897</b> | <b>-507</b> | <b>-4,09</b> |

Eskaria lehen aukera 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteak.

#### Gipuzkoa

Jaiotzen jaitsierak ez du etenik eta hau onarpen prozesuko eskarietan atzeman da. Orokorrean, Gipuzkoan, iaz baino %7,51 matrikula eskari gutxiago jaso dira, baina ez du eragin berdina izan sare publikoan eta pribatuan. Lehenengoan eskaria %3,09 jaitsi bada, bigarrengean %11,86. Datuak patronalen artean alderatzen baditugu, ez da alde handiegirik izan eta guztiek jasan duten galera %11-12 ingurukoa izan da. Iaz publikoak eskarien %49,55a jaso bazuen, aurten %51,92a jaso du.

| Gipuzkoa                 | Eskaria 1. aukera |              | Δ 2023-2025 |               |
|--------------------------|-------------------|--------------|-------------|---------------|
|                          | 2023-2024         | 2024-2025    | Kopurua     | %             |
| <b>Eskola Publikoa</b>   | <b>2.236</b>      | <b>2.167</b> | <b>-69</b>  | <b>-3,09</b>  |
| Kristau Eskola           | 801               | 700          | -101        | -12,61        |
| Ikastola                 | 1.288             | 1.088        | -140        | -11,40        |
| Besteak                  | 248               | 219          | -29         | -11,69        |
| <b>Pribatuak guztira</b> | <b>2.277</b>      | <b>2.007</b> | <b>-270</b> | <b>-11,86</b> |
| <b>Guztira</b>           | <b>4.513</b>      | <b>4.174</b> | <b>-339</b> | <b>-7,51</b>  |

Eskaria lehen aukera 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteak Gipuzkoa.

Aipagarria da Urnietako (%114,29), Villabona (%30,00) edo Oñatiko (%40,74) ikastetxe publikoek eskarian izan duten igoera, eta eskualdeka begiratzen badugu, Debagoienako eskola publikoarena. Debagoienak iaz baino 19 eskari gutxiago jaso ditu (-%5,41), baino hau ez da sareen artean modu orekatuan izan, publikoak %17,83 eskari gehiago jaso dituen bitartean, pribatuak %18,92 gutxiago jaso dutelako. Publikoak iaz baino 23 matrikula eskari gehiago jaso dituen bitartean, Ikastolak 47 gutxiago jaso ditu, eta ondorioz, **azken hamarkadetan gertatu ez bezala, Debagoienan publikoak ikastolak baino eskaera handiagoa izan du.**

| Debagoiena                | Eskaria 1. aukera |            | Δ 2023-2025 |               |
|---------------------------|-------------------|------------|-------------|---------------|
|                           | 2023-2024         | 2024-2025  | Kopurua     | %             |
| <b>Eskola Publikoa</b>    | <b>129</b>        | <b>152</b> | <b>23</b>   | <b>17,83</b>  |
| Ikastola                  | 197               | 150        | -47         | -23,86        |
| Kristau Eskola            | 5                 | 12         | 7           | 140,00        |
| EIB                       | 20                | 18         | -2          | -10,00        |
| <b>Pribatuak guztira</b>  | <b>222</b>        | <b>180</b> | <b>-42</b>  | <b>-18,92</b> |
| <b>Debagoiena guztira</b> | <b>351</b>        | <b>332</b> | <b>-19</b>  | <b>-5,41</b>  |

Eskaria lehen aukera 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteak Debagoiena.

## Araba

Sarreraren esan bezala, Arabako eskariak %11,10 behera egin du iazko datuekin alderatuz, baina jaitsiera ez da berdina izan sareen artean, publikoak eskarien %7,65 galdu duen bitartean, pribatuak %15,96 galdu baitu. **Lurraldeen artean Araba da publikoan eskari gehien jasotzen dituen eta aurten ere hala izan da, eskariaren %60,72 jaso baitu, iaz baino 2,27 puntu gehiago.**

| Araba                    | Eskaria 1. aukera |              | Δ 2023-2025 |               |
|--------------------------|-------------------|--------------|-------------|---------------|
|                          | 2023-2024         | 2024-2025    | Kopurua     | %             |
| <b>Eskola Publikoa</b>   | <b>1.190</b>      | <b>1.099</b> | <b>-91</b>  | <b>-7,65</b>  |
| <b>Pribatuak guztira</b> | <b>846</b>        | <b>711</b>   | <b>-135</b> | <b>-15,96</b> |
| <b>Guztira</b>           | <b>2.036</b>      | <b>1.810</b> | <b>-226</b> | <b>-11,10</b> |

Eskaria lehen aukera 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteak Araba.

Herriz herri begiratuz gero, bada herri bat besteen gainetik azpimarratu beharrekoa, eta hau Amurrio da. EAEn izan den jaiotza jaitsierari bizkar emanez, herri honetan iaz potentzialki 58 haur bazeuden 2 urteko gelan eskaria egiteko, aurten 72 izan dira, 14 gehiago. Eskola publikoak iaz 23 eskari soilik jaso bazituen, aurten 42 jaso ditu, %82,61 gehiago. Ikastetxe pribatuaren artean berriz, Kristau Eskolak 2 eskari gehiago jaso dituen bitartean, Ikastolak 9 gutxiago, hau da, %34,62ko galera.

**Argi eta garbi esan daiteke Amurrio dela eskola publikoaren aldeko plataformen borroka bere fruituak ematen dituenaren adibide garbia.**

| Amurrio                  | Eskaria 1. aukera |           | Δ 2023-2025 |               |
|--------------------------|-------------------|-----------|-------------|---------------|
|                          | 2023-2024         | 2024-2025 | Kopurua     | %             |
| Eskola Publikoa Mendiko  | 13                | 33        | 20          | 153,85        |
| Eskola Publikoa Zabaleko | 10                | 9         | -1          | -10,00        |
| <b>Publikoa guztira</b>  | <b>23</b>         | <b>42</b> | <b>19</b>   | <b>82,61</b>  |
| Kilikolo Arasketa        | 26                | 17        | -9          | -34,62        |
| Amaurre                  | 12                | 14        | 2           | 16,67         |
| <b>Pribatuak guztira</b> | <b>38</b>         | <b>31</b> | <b>-7</b>   | <b>-18,42</b> |
| <b>Amurrio guztira</b>   | <b>61</b>         | <b>73</b> | <b>12</b>   | <b>19,67</b>  |

Eskaria lehen aukera 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteak Amurrio.

### Bizkaia

Lurralde honetan gertatutakoa bitxia da, eskaria egiteko iaz baino %2,67 haur gutxiago egon arren, 2 urteko gelako eskaria %0,99 igo delako. Fenomeno hau soilik Bizkaian eman da, eta honen arrazoiak aurkitzea ez da erraza, baina agian 2 urteko gelak itunduak izatea, zaurgarrien banaketa 2 urteko gelan emateak, edo kontziliazio arazoak izan daitezke.

Taulan, sare publikoak eta pribatuak jaso dituen eskariak ikusten baditugu, ia iazko argazkia errepikatzen dela esan dezakegu. Publikoak jaso dituen eskariak %0,51ko gorakada izan du, eta pribatuak %1,49a. Patronalka begiratzuz gero, EIBk eskariaren %9,12 galdu du, eta AICE/IZEA eta Ikasgiltzak %10 inguru irabazi dute. 2023-2024 ikasturtetik 2 urteko gelak itunduak direnez, ikastetxe pribatu askok 2 urteko gelak zabaldu dituzte eta horren ondorioz haurreskola pribatuak matrikularen %46,67 galdu dute maila eta etapa horretan.

| Bizkaia                  | Eskaria 1. aukera |              | Δ 2023-2025 |             |
|--------------------------|-------------------|--------------|-------------|-------------|
|                          | 2023-2024         | 2024-2025    | Kopurua     | %           |
| <b>Eskola Publikoa</b>   | <b>2.962</b>      | <b>2.977</b> | <b>15</b>   | <b>0,51</b> |
| Kristau Eskola           | 1.220             | 1.251        | 31          | 2,54        |
| Ikastolen Elkartea       | 627               | 661          | 34          | 5,42        |
| EIB                      | 362               | 329          | -33         | -9,12       |
| Elizbarrutia             | 174               | 176          | 2           | 1,15        |
| AICE/IZEA                | 193               | 212          | 19          | 9,84        |
| Ikasgiltza               | 242               | 267          | 25          | 10,33       |
| Haurreskola pribatuak    | 75                | 40           | -35         | -46,67      |
| <b>Pribatuak guztira</b> | <b>2.893</b>      | <b>2.936</b> | <b>43</b>   | <b>1,49</b> |
| <b>Bizkaia guztira</b>   | <b>5.855</b>      | <b>5.913</b> | <b>58</b>   | <b>0,99</b> |

Eskaria lehen aukera 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteak Bizkaia.

Orokorrean hartuta Bizkaiko argazkia finkoa bada ere, **badira herri edo eskualdeak eskola publikoaren eskariek gora egin dutenak, baita behera egin dutenak ere. Lehenengotan Barakaldo (+%9,80), Basauri (+%24,27) edo Elorrio (+%86,36) aurki ditzakegu eta bigarrengoan adibidez, Durango (-%11,11).** Durangoko kasua bereziki salagarria da eskaintza pribatua eskaintza guztiaren %72koa baita.

20 urte pasatu dira, eta zerbitzu publikoak oso gogoko ez dituen eskuindar gobernu honek, familien hautua aldatzea ez du lortu. Derrigorrezko etapatan, hezkuntza publikoak izan dituen matrikula eskariak %4-6 puntutan egin du gora, eta itunpekoak portzentaje berdinetan behera egin du. Zergatiaren bila hasten bagara, arrazoiak ekonomikoak izan daitezke (2008ko ekonomi krisia), familien kristau baloreen beherakada, hezkuntza publikoaren kalitatea (irakasleen dedikazio, formazio eta inplikazioagatik batez ere), etorkin kopuruaren igoera edo gizartea zerbitzu publikoen garrantziaz jabetzen ari dela.






## 4. Itunpeko ikastetxeen erreskatea

Jaiotza jaitsierak itunpeko ikastetxeei publikoei baina gehiago eragingo die. Gaur egun EAEn jaiotzen diren haurren %31 inguruk migratutako ama dute, duela 8 urte baino 12 puntu gehiago. Haur hauen %76a ikastetxe publikoetan matrikulatzen da eta hala jarraituz gero, publikoko eskariak gora egiten jarraituko du, itunpekoen kaltetan. Ikasle zaurgarri hauek ez-desiratuak izatetik itunak jasotzeko behar den ratio minimoetara iristeko beharrezkoak bihurtu dira.

Itunpeko ikastetxeetako gelak ez ixteko, eta negozioa errentagarria izaten jarraitzeko, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan bereziki, Hezkuntza Sailak hauen erreskaterako neurriak hartu zituen. Hala ere, **lehen pausoa eskaintzan 2022-2028 seiurtekoa blindatzea izan zen, ia 2016-2022 seiurteko eskaintza errepikatuz, jaiotza jaitsiera kontuan hartu gabe.** Honek duen garrantziaz jabetzeko, itunpeko ikastetxeen eskaintza 6 urterako dela jakin behar dugu, eta jaiotza-tasari egokitzen ez bazaio gaineskaitza sortuko duela. Ondorioz, segregazioa handituko da. Ikastetxe publikoen eskaintzak ez du seiurtekorik, eta urtez urte jaiotze-tasaren gorabeheretara moldatu beharra izaten du, itunpekoentzat espresuki sortutako blindatze neurririk gabe.



Migratutako ama duten jaiotzen eboluzioa ehunekotan 1996-2023.

### a. Ituntzeko gutxieneko ratioen jaitsiera

Gela bat ituntzeko ikasle kopuru minimo bat izatea eskatzen zaie itunpeko ikastetxeei, baina jaiotzen jaitsiera dela eta, ikastetxe pribatu hauei gero eta gehiago kostatzen zaie ikasle kopuru minimo horietara iristea. Zein izan da Hezkuntza Sailaren erabakia? HH eta LHko mailatan, jaiotza tasaren jaitsierak eragina izan duen etapatan, ratioak jaistea. Hau da, lehen etapa hauetan **ituna**

jasotzeko gutxienez 17 ikasle behar baziren, orain 13 izatea nahikoa da. Erabaki hau hartzeko orduan ez da inolako arrazoi pedagogikorik eman, erreskate hutsa izan da, ikastetxe pribatuen erreskatea.

**Ratio jaitsierak ekarri duen albo-kalteetariko bat aulki hutsen, soberakinen, igoera izan da.** Haur eta Lehen Hezkuntzan gehiengo ratioa 25 da, eta itundua izateko ikasle kopuru minimoa 13 izanik, 12 aulki soberan egon daitezke, %48a. Kasu hau maila jakin batean talde bakarra duenetan emango da, 2 gela izanez gero, soberakina %44 izatera iritsi daiteke. **Honi, dirua xahutzea deitzen zaio.**

| HH-LH   | Ratio minimoa |      |
|---------|---------------|------|
|         | 2022          | 2023 |
| 1 talde | 17            | 13   |
| 2 talde | 34            | 28   |
| 3 talde | 59            | 55   |
| 4 talde | 84            | 82   |
| 5 talde | 109           | 109  |
| 6 talde | 134           | 136  |

Ituna jasotzeko behar diren ratioa minimoak talde kopuruen arabera.

| HH-LH   | 2022   |            |       | 2023   |            |       |
|---------|--------|------------|-------|--------|------------|-------|
|         | Ratioa | Soberakina | %     | Ratioa | Soberakina | %     |
| 1 talde | 17     | 8          | 32,00 | 13     | 12         | 48,00 |
| 2 talde | 34     | 16         | 32,00 | 28     | 22         | 44,00 |
| 3 talde | 59     | 16         | 21,33 | 55     | 20         | 26,67 |
| 4 talde | 84     | 16         | 16,00 | 82     | 18         | 18,00 |

Ratioa minimoak sortzen dituzten soberakinak talde kopuruen arabera.

## b. Modulu ekonomikoaren igoera

Kontzertu ekonomikoa itunpeko ikastetxe pribatuei eusteko erabiltzen diren funts publikoen zenbateko osoa da, itunaren xede diren irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko. Modulu ekonomikoek zentroko langileen eta funtzionamenduaren gastuak finantzatzeko balio dute. Azpiko koadroak, etapa bakoitzean itundutako gelengatik jasotzen den finantzaketa eta honek 2021-2024 ikasturteetan izan duen eboluzioa erakusten du.

|                 | 2021-2022 | 2022-2023 | 2023-2024 | Δ €      | Δ %    |
|-----------------|-----------|-----------|-----------|----------|--------|
| Haur Hezkuntza  | 69.897 €  | 75.741 €  | 78.723 €  | 8.826 €  | %12,63 |
| Lehen Hezkuntza | 73.112 €  | 79.414 €  | 82.480 €  | 9.368 €  | %12,81 |
| DBH 1. zikloa   | 101.186 € | 109.979 € | 114.297 € | 13.111 € | %12,63 |
| DBH 2. zikloa   | 113.946 € | 123.750 € | 128.591 € | 14.645 € | %12,85 |
| Batxilergoa     | 116.686 € | 126.846 € | 131.784 € | 15.098 € | %12,94 |

Modulu ekonomikoen eboluzioa 2021-2024.

Azken bi urte hauetan modulu ekonomikoak jaso duen igoera ikaragarria izan da, ia %13koa. DBH 2. zikloko gela batean adibidez, **bi urteko epean 14.645 € gehiago sartu dira. 25 ikasleko gela bada, ikasleko eta urteko 585,8 € gehiago, hau da, 48,8 € gehiago ikasleko eta hileko.** Salagarria da horrelako igoera izan eta gero, ia kasu gehienetan (salbuespenak badira) kuotetan eraginik ez izatea eta igoera hori patronalen poltsikoetan geratzea.

Ratioen jaitsiera eta modulu ekonomikoen igoerak, biak bateratzen baditugu, erreskatearen zenbatekoaz jabetuko gara. 2021-2022 ikasturtean LHko itundutako gela batengatik ikastetxeak 73.112 € jasotzen zituen, eta ratio minimoa 17koa izanik, ikasle bakoitzagatik 4.301 € sartu zitezkeen, beti ere gela hori 17 ikaslekoa izango balitz. Erreskatea ondoren, ikasle bakoitzagatik 6.345 € sar daitezke gela 13 ikaslekoa bada, hau da, %47,5 gehiago. Zifra huts bat da, baina esanguratsua, ezta?

## c. 2 urteko gelak ituntzea

Puntu hau ulertzeko, taulak jasotzen dituen 4 kontzeptu hauek ezagutu behar ditugu:

**0-2 PRIB (lehen 0-3):** 0-18 ibilbidea duten itunpeko ikastetxeen haur hezkuntzako 0-2 etapa.

**HEPR:** hauek Haur Hezkuntza Pribatuak dira eta 0-2 soilik (oso kasu gutxitan 0-3) eskaintzen dute.

**Udalak:** udal haur eskolak.

**2 urte:** 2 urteko gela itunduak.

2023 ikasturtean 2 urteko gela ez zegoen itundua. 0-18 ibilbidea zuten ikastetxeek 0-3 etapako diru laguntza agindu bidez jasotzen zituzten. Agindu honek HEPRko diru laguntzak ere jasotzen zituen. Udalek haur eskolengatik jasotzen duten laguntza beste ebazpen batek jasotzen du. 2023 ikasturtean, 2 urteko gelak itunduak ez izanda, kontzeptu honengatik itunpeko ikastetxeek jasotako laguntza 0 €koa izan zen.

2024 ikasturtean 2 urteko gelak ituntzean, 0-2 PRIB atalak diru galera izango du, 2 urteko gelagatik jasotzen zuen laguntza galtzen duelako.

|             |          | 0-2 PRIB        | HEPR           | Udalak         | 2 urte          | Guztira         |
|-------------|----------|-----------------|----------------|----------------|-----------------|-----------------|
| 2023        | Araba    | 2.086.666,51 €  | 626.744,72 €   | 1.078.516,12 € | 0,00 €          | 3.791.927,35 €  |
|             | Bizkaia  | 8.882.387,29 €  | 4.579.771,08 € | 442.562,81 €   | 0,00 €          | 13.904.721,18 € |
|             | Gipuzkoa | 6.575.277,25 €  | 2.149.610,88 € | 1.630.953,30 € | 0,00 €          | 10.355.841,43 € |
|             | EAE      | 17.544.331,05 € | 7.356.126,68 € | 3.152.032,23 € | 0,00 €          | 28.052.489,96 € |
| 2024        | Araba    | 833.590,01 €    | 586.817,51 €   | 1.270.509,55 € | 3.306.367,26 €  | 5.997.284,33 €  |
|             | Bizkaia  | 4.597.916,41 €  | 5.272.692,82 € | 536.419,47 €   | 11.414.839,35 € | 21.821.868,05 € |
|             | Gipuzkoa | 3.070.572,10 €  | 2.043.350,88 € | 1.431.265,10 € | 9.131.871,48 €  | 15.677.059,56 € |
|             | EAE      | 8.502.078,52 €  | 7.902.861,21 € | 3.238.194,12 € | 23.853.078,09 € | 43.496.211,94 € |
| Δ 2023-2024 |          | -9.042.252,53 € | 546.734,53 €   | 86.161,89 €    | 23.853.078,09 € | 15.443.721,98 € |

0-3 etapa pribatuko diru laguntzak 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteak.

2 urteko gelak ituntzean, eta itunpeko ikastetxeek gela hauek zabaltzean, eragin zuzena izan du matrikulan haur eskola pribatuetan (0-2 PRIB). Hala ere, azken hauen diru sarrerek gora egin dute, eta 2024an 2023an baino 546.734,53 € gehiago jaso dute. Honen arrazoia, **ikasleko jasotzen duten diru laguntzak %14,93 gora egin duelako da**. Ikaragarria eta ulertezina!



| Adin-tartea | Dirulaguntza |            | Δ 2022-2024 |       |
|-------------|--------------|------------|-------------|-------|
|             | 2022-2023    | 2023-2024  | Δ           | %     |
| 0 urte      | 4.173,65 €   | 4.796,66 € | 623,01 €    | 14,93 |
| 1 urte      | 2.568,41 €   | 2.951,79 € | 383,38 €    | 14,93 |
| 2 urte      | 1.854,96 €   | 2.131,85 € | 276,89 €    | 14,93 |

0-2 etapa pribatuko diru laguntzen igoera 2022-2024.

Udal haur eskolei, haur eskola pribatuei gertatu zaien berdina pasa zaie, eta hauek ikasleak galtzeaz gain haur eskola batzuk itxi ere egin dira, Eskoriatzan eta Arrasaten alegia. Hala ere hauen diru sarrerek ere 86.161,89 € gora egin dute moduluek %11,60ko igoera izan baitute.

| Adin-tartea | Dirulaguntza |            | Δ 2022-2024 |       |
|-------------|--------------|------------|-------------|-------|
|             | 2022-2023    | 2023-2024  | Δ           | %     |
| 0 urte      | 4.298,19 €   | 4.796,66 € | 498,47 €    | 11,60 |
| 1 urte      | 2.645,05 €   | 2.951,79 € | 306,74 €    | 11,60 |
| 2 urte      | 3.183,84 €   | 3.553,08 € | 369,24 €    | 11,60 |

Udalei 0-2 etapan diru laguntzen igoera 2022-2024.

Nahiz eta 0-2 etapan 9M euro inguru gutxiago jaso, 2 urteko gelak ituntzeak orokorrean Hezkuntza Sailari 15,4M euro gehiago suposatu dio, iaz baino %55 gehiago. **Erreskatea ez da derrigorrezko etapatar mugatu, derrigorrezkoa ez den 0-3 etapara ere heldu baita.**

## d. Pribatuen finantzaketaren igoera

|           | Haurreskolak | Ituna         | Hezkuntza berezia | Espezialistak | Guztira       |
|-----------|--------------|---------------|-------------------|---------------|---------------|
| 2021-2022 | 24.391.767 € | 630.570.605 € | 37.975.373 €      | 15.369.648 €  | 708.307.393 € |
| 2023-2024 | 16.383.024 € |               | 816.196.442 €     |               | 832.579.466 € |

Pribatuko diru laguntzen igoera 2022-2024.

Aipatu ditugun neurriek, hezkuntza ituna, eta orokorrean ikastetxe pribatuei ematen zaien diru laguntza izugarri igotzea ekarri du. 2021-2024 tartean, hau da, erreskatea gauzatu den 2 urteetan, 0-18 etapan 124M € gehiago sartu dira ikastetxe pribatuetan, %17,54 gehiago. Itunen aginduan 2 urteko gelez gain laguntzako langile gehigarriak ere sartu dituzte azken urtean baina horrek ez du igoera hau justifikatzen lehen ere laguntza hauek beste agindu batean jasota baitzeuden.

| Kontzeptua (2021-2022)           | Laguntza     |
|----------------------------------|--------------|
| Eskolatzeko osagarriko programak | 1.211.250 €  |
| Kulturartekotasuna               | 2.000.000 €  |
| COVID gastu gehigarriak          | 37.565.167 € |
| Ordenagailu portatilak           | 15.300.000 € |
| Hezkuntza eduki digitalak        | 2.025.240 €  |
| Hizkuntza proiektuak             | 1.332.000 €  |
| HEZKOOP                          | 24.192.000 € |
| Guztira                          | 83.625.657 € |


Pribatuko beste diru sarrerek 2021-2022.

Goian aipatutako diru laguntza gehienak itunak jasotzen ditu eta haurreskolei dagokiena, udal eta haurreskola pribatuei propio bideratuta dauden deialdietan datoz. Baina badira beste laguntza batzuk, txikiagoak izan arren, denak batuz gero dirutza suposatzen dutenak, eta ez gara garraio edo jangela bekez ari, horiek pertsonalak baitira, ikastetxean obrak egiteko, ordenagailu portatilak erosteko edo hizkuntza proiektuak garatzeko ematen diren laguntzaz hitz egiten ari gara. Deigarria da 2021-2022 ikasturtean itunpeko ikastetxeek jaso zuten diru laguntza **“beste kontzeptuetan”**. Aurrez jaso zituzten 708,3M euro horiei 83,6M euro hauek erantsiz gero, **792M euroraino iristen gara, hau da, oinarrizko laguntzei beste %11,8 gehiago jarri behar zaizkie.**

Nahiz eta taulan jasoak ez egon, beste sarrera batzuk ere badira, adibidez Lanbide Heziketako zikloentzako bideratuak daudenak, edo ikastetxe publiko eta itunpekoei bideratuak daudenak. Azken hauek ez ditugu sartu kopurua zehaztea erraza ez delako. 2021-2022 ikasturteak laguntza bereziak izan zituen, adibidez Covidari aurre egitekoak. Laguntza hori puntuala izan zen, baina badira beste batzuk urtero ateratzen direnak, 3 urtean behin atertzen direnak, HEZKOOOP (24M €) adibidez, eta beste batzuk berriak direnak, Pentsamendu konputazionala garatzeko (5,3M €) edo Enplegua mantentzeko eta plantillak gaztetzeko laguntzak (11,5M €), besteak beste.

Imanol Pradalesen gobernu berriaren lehen legea Iñigo Urkulluk onartutako 2024ko aurrekontuen aldaketa espres bat izango da. Ikastetxe pribatuetako irakasleen soldatak Hezkuntzako funtzionarioenekin parekatzea da helburua. Ikastetxe pribatu erlijiosoetako eta ikastoletako patronalek Jokin Bildarratzekin, aurreko Hezkuntza sailburuarekin, itundutako ordainsari hobekuntzak **aparteko 68 milioi euroko sarrera suposatuko die** ikastetxe hauei.

**Publikorako dirurik bideratzen ez den bitartean  
hauentzat iturria beti zabalik!**



## Haurreskolen doakotasuna

0 eta 1 urteko gelei ematen zaien dirulaguntza %14,93 handitzeak edo orokorrean itunen igoerek, iruzur berri bati atea zabaldu diote, haur eskola doan eskaintzeari. Bi kasu atzeman ditugu, Zumaiako Zumaiena ikastetxean eta Oñatiko Elkar Hezin, baina pentsatzen dugu EAEn kasu gehiago ere izango direla. Ikastetxe pribatu hauek 0 eta 1 urteko haurreskolak doakoak eskaintzen dituzte, beti ere familiek haurrak 2 urteko mailan ikastetxe berdinean matrikulatzen badituzte. Hau da, "orain ez dizut ezer kobratuko, baina egon lasai, izango dut denbora, 2-18 urte tartean, haurreskolako gastuak eta gehiago kobratzeko". Ikastetxe hauek merkatu logikan jokatzeko dute eta horretarako iruzur egitea ere zilegi dela uste dute.


2023ko urriaren 4ko aginduak, pribatuko haur-eskolentzat 2023-2024ko ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duenak, 5. artikuluan, betetzen den plaza bakoitza %60an finantzatzeko dela jasotzen du. Honek, ikastetxeari familiei kuota bat kobratzea baimentzen die, diru laguntzak ez baitu gastu osoa estaltzen.

| Adin-tartea | Modulua    | Dirulaguntza |
|-------------|------------|--------------|
| 0 urte      | 7.994,44 € | 4.796,66 €   |
| 1 urte      | 4.919,65 € | 2.951,79 €   |
| 2 urte      | 3.553,08 € | 2.131,85 €   |

0-2 etapa pribatuko diru laguntza moduluka 2023-2024.

Gaur egun 2 eta 18 urte bitarteko mailetan finantzaketa osoa da, hau da, plazaren %100 diruz hornitzen da. **Maila hauetan familiei kuotak kobratzea ez da legala** eta oso zehatz jasota dago diru laguntzak zein kontzeptuetara bideratu behar diren. Adibidez, ezin dira 0 eta 1 urteko geletara bideratu, hala eginez gero legea urratuko bailukete. Orduan, nork ordaintzen du finantzaturik ez dagoen plazaren %40a? Erantzuna edozein izanda ere iruzur zantzua izango du.

**Kuotak kobratzea baimenduta dauden mailetan debalde eta kobratu ezin dutenetan kuotak.**



## 5. Hezkuntza sailaren ez-neurriak

Hezkuntza Saila azken urte hauetan propio eraginkorrak ez diren neurriak hartzen aritu da. Eraginkorrak ez dira, baina lerroburu onak eman dizkio eta hori saltzen saiatu da. Zaurgarrien banaketa, eragin eremuen berrikuspena, doakotasuna, hurbiltasuneko eskolatzea edo gaitzeskaintza murriztea ahotan izan dute agerraldi guztietan. Urteak dira arazo horiek mahai gainean zituztela baina ez zeuden beraien lehentasunen artean. Behingoz gai hauei eutsi eta zerbait egiteko asmoa erakutsi dutenean, neurri antzuak hartu dituzte. Neurri hauen ez-eraginkortasuna propio bilatutakoa da, neurri eraginkorrek itunpeko ikastetxeetan izango luketen eragin kaltegarria ekiditeak lehentasun handiagoa baitu.

### a. Zaurgarrien banaketa

Ikasle-mota jakin bat ikastetxe berberetan kontzentratzeari eskola segregazioa deitzen diogu. Sexuz segregatu daiteke, jatorriz, zaurgarritasun mailagatik edo maila sozioekonomikogatik. Azken hau da bereziki EAEn ematen dena eta egoera honetara iritsi bagara, itunpeko ikastetxeen gaitzeskaintza medio, familiek haurrak matrikulatzean duten askatasun osoagatik izan daiteke. Jatorriak edo zaurgarritasun maila altuak ez du garrantzirik beti ere hauen egoera sozioekonomikoa altua bada. Kontua da, familia askok ez dituztela beren haurrak maila sozioekonomiko baxuko ikasleekin nahastu nahi. **Eskola-segregazioa arazo bihurtu da aukera-berdintasunerako eta hezkuntza-sistemaren eraginkortasunerako eta hau ekiditea izan beharko luke Hezkuntza sailaren erronkarik handiena.**

Hezkuntza Sailak segregazioari aurre egiteko hartu duen neurri izarra Onarpen Dekretuak jasotzen duen 20. artikulua da, eta honek, Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak eskolatzeko plazak erreserbatu behar direla jasotzen du. Premia espezifikoak duten ikasleek hitz egiten ari garenean zertaz ari gara hitz egiten? Sozioekonomikoki zaurgarriak diren ikasleek? Ez, zaku berean hurrengo hauek guztiak sartzen dituzte: atzerapen ebolutiboak eragindakoak, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmenduak eragindakoak, arre- eta ikaskuntza-nahasmenduak eragindakoak, ikaskuntza-hizkuntzaren ezjakintasun larriak eragindakoak, gizarte- eta hezkuntza-egoera ahulean egoteak eragindakoak, adimengaitasun handiak izateak eragindakoak, hezkuntza-sisteman berandu sartu izanak eragindakoak, edo baldintza pertsonalek edo eskola-historiak eragindakoak. Onarpen prozesua gehienbat 2 urteko gelan ematen denez, aurrez aipatutako kasu asko ezin dira adin horietan diagnostikatu. Zoriturrez, familiek aitortutako Hezkuntza Premia Bereziei buruzko diagnostikoa aurkeztu dezakete onarpen prozesuan. Diagnostiko hori mediku lagun batek sinatu dezake, eta hala iruzurrari atea ireki.

Bestalde, ikastetxe guztiek dute zaurgarriak identifikatzeko "Hezkuntza-laguntzarako berariazko premiei buruzko galdetegi" eta lehen aldiz matrikulatzeko asmoz doan ikasle orori pasatzen zaio galdetegi hau. Galdetegian jasotzen diren galdera batzuk ez lukete ikasleak sailkatzeko balio beharko, ia literatura klasiko edo garaikideko liburuak, entziklopediak edo Netflix, Amazon Prime edo ordainpeko beste telebistaren bat etxean baduten galdetzen baitaie. Zenbat ordenagailu, auto, bainugela, logela, e-book, tablet eta smartphone dituzten ere markatu behar dute. Galdera hauek ausaz erantzun daitezke, inor ez baita ikasleen etxeetatik pasatuko erantzundakoa egia den baieztatzera. Erantzunek ordea berebiziko garrantzia dute,

hauek markatzen baitute ikaslea zaurgarria den ala ez. Erantzunen kontrol ezak iruzurrari ateak zabaltzen dizkio, zaurgarrientzako gorde behar diren plazak betetzeko tresna bihurtu baitaiteke.

2023-2024 ikasturteko onarpenean, berariazko premiak dituzten ikasleentzat gorde ziren plazak 2 urteko gelan bakarrik gauzatu ziren, 2024-2025 ikasturtean berriz 2 eta 3 urteko gelan, eta hurrengo urteetan maila bat goragokoetan gorde beharko dira plazak. Beraz, neurri honek eragina izan dezan, izango badu, urte batzuk pasatu beharko dute. Helburua, ikastetxe guztiak eragin eremuko zaurgarritasun tasara iristea da, hau da, eragin eremuko tasa %18koa bada eta ikastetxekoa %12koa, eskariaren %6a suposatuko duen plazak gorde beharko dituzte zaurgarrientzat. Inolaz ere ezingo dute %10eko esfortzua baina handiagoa egin. Tope honek ere eraginkortasuna kentzen dio neurriari.

Onartezina da estigmatizatuak diren ikasle horiek merkantzia moduan lehen aukeran hautatu duten ikastetxetatik bigarren batetara eramatea. Kasu askotan kuotei ere aurre egin ezin dieten ikastetxeetara. Lehen aukera eskola publikoa izan eta bigarren batera, pribatua orokorrean, bidali dituzten ikasleen familiek epaitegietara jo dute publikoan lekua egonik beraien umeak beste ikastetxe batetara bideratu dituztelako. Epaia ren zain gaude, baina bitartean ikasle hauek kuoten, uniforme en edo predikatzen ez duten erlijioaren diktadura pairatuko dute.

|                                                                    |     | Lehen aukeran onartuak |       | Lehen aukeran ez-onartuak |       |
|--------------------------------------------------------------------|-----|------------------------|-------|---------------------------|-------|
| Gipuzkoa behin betiko esleipena 2024-2025 (2 eta 3 urteko gelatan) |     | Ikasle kopurua         | %     | Ikasle kopurua            | %     |
| HLPB                                                               | Bai | 542                    | 79,23 | 142                       | 20,77 |
| HLPB                                                               | Ez  | 3.749                  | 95,32 | 184                       | 4,68  |

Lehen aukeran onartuak eta ez-onartuak Gipuzkoa 2024-2025.

Legea urratzeaz gain ezkutuko bi zerrenda sortzen ditu neurri honek, pribilegiatuak diren ez-zaurgarrien zerrenda eta zaurgarriena. Bigarren zerrendakoak estigmatizatuak izateaz gain, aukera gutxiago dituzte lehen aukeran hautatu duten ikastetxean matrikulatzeko. Gipuzkoan adibidez, 2024-2025 ikasturteko onarpen prozesuan, neurria aplikatzen den 2 eta 3 urteko mailatan, hezkuntza laguntzako berariazko premiak (HLPB) dituzten ikasleen %20,77a ez dira beraien lehen aukeran onartuak izan, eta bigarren edo atzeragoko beste aukera batetara bideratu dituzte. HLPB ez diren ikasleen kasuan berriz, soilik %4,68a ez da lehen aukeran onartua izan. **Honek, zaurgarriak, kromoak izango balira bezala, batera eta bestera trukean mugitzen dituztela baieztatzen digu.**

| Bizkaia 2 urteko gela  | Eskaria   |           | Zaurgarriak |       |           |       |
|------------------------|-----------|-----------|-------------|-------|-----------|-------|
|                        | 1. aukera | Esleituak | 1. aukera   | %     | Esleituak | %     |
| <b>Publikoa</b>        | 2.986     | 2.995     | 660         | 22,10 | 654       | 21,84 |
| <b>Pribatu-itundua</b> | 2.903     | 2.910     | 291         | 10,02 | 311       | 10,69 |

Zaurgarrien banaketa 2 urteko gela Bizkaia 2024-2025.

Sozioekonomikoki zaurgarriak diren ikasleen zaku berean sozioekonomikoki arazorik ez duten ikasleak sartzeak, diagnostikoetan iruzurra egin ahal izateak, neurri honen emaitzak (emango balitu) urte asko barru izateak, edo zaurgarrien banaketa egiterakoan ikastetxe bakoitzak



egin lezakeen esfortzua %10era mugatzeak, kualitatiboki eraginkortasuna mugatzen dute. Kualitatiboki ezik, kuantitatiboki ere segregazioari aurre egiteko neurri hau ez da nahikoa. Adibide bezala Bizkaian 2 urteko mailako onarpen prozesua hartuko dugu. Ikastetxe publikoetan, lehen eskaria egin zutenetatik 660 zaurgarriak izan ziren eta pribatuetan 291. Hala, publikoan %22,10 zaurgarriak ziren eta pribatuan %10,02a. Zaurgarrien banaketa egin ondoren zaurgarritasun tasak 0,26 puntutan egin du behera publikoan eta 0,67 gora pribatuan. Hau da, publikoa zaurgarri guztietatik %69,4 izatetik %66,7 izatera pasa da, eta pribatuan %30,6tik %33,3ra. Gipuzkoan ere, zaurgarrien banaketa egin ondoren, publikoko tasa %15,15etik 14,18ra jaitsi da eta pribatuan %7,81etik %8,75era igo, beraz, puntu bateko eragina ere ez du izan.

Aplikazio bera okerra izan den kasuak ere badira, non zaurgarrientzako erreserbarik ez den egin, zaurgarriak ez duten jaso edota esfortzua %10 baino handiagoa izan den. Kontuan hartu gabe publikoan lekua egonda ikasleak beste ikastetxeetara bidali dituzten kasuak.

**Argi geratzen da neurri hau segregazioari aurre egiteko antzua dela baina Hezkuntza Sailari zerbait egiten ari denaren itxura emateko balio dio.**

**Segregazioaren aurkako neurriak hartu behar dira, bai, baina eraginkorrek direnak, itunpekoen ikastetxeen eskaintza mugatzea adibidez, erreserbarenak ezer gutxirako balio baitu, eta are gutxiago iruzurrerako ateak zabaltzen badizkiogu.**

## b. Hurbiltasuneko eskolatzea

Beste neurri izarretako bat hurbiltasuneko edo "zero kilometro" eskolatzea izan da. Neurri honek ikasleak auzoko ikastetxeetan matrikulatzea zuen helburu eta ekologikoki jasagarria izango den hezkuntza bultzatzea, hau da, ikasle garraiatuak murriztu, eta ingurumen aztarna ahalik gehien gutxitzea.

Asmoa ona da, baina zein izan da Hezkuntza Sailak hartu duen neurria? Matrikula eskaera egitean ikastetxe batek eskaintza baino eskari handiagoa izanez gero, izena eman dutenak barematzea eta puntuazio txikiena dutenei beste ikastetxe bat esleitzea. Onarpen dekretu berriak, barematzean, puntuazio handiena (7 puntu) hurbiltasun atalari eman dio, senideak ikastetxe berean matrikulatuta egotearen aurretik (6,5 puntu). Hau da hartu den neurria. Honek hurbiltasuneko eskolatzea bermatzen du? Ez. Egun, jaiotze tasaren jaitsieraren ondorioz, oso ikastetxe gutxi dira eskaintza baino eskari gehiago jasotzen dutenak, eta orokorrean eskariaren %1a ere ez du suposatzen. Gainera, berdintasuna hausten duen irizpidea ia inoiz ez da hurbiltasunaren atala izaten.

Laburbilduz, Sailak hartu duen neurriak ez du ezertarako balio, eta lehen bezala, autobusak aurrera eta atzera dabilta ikasleak garraiatuz.

**Loiuko kasua aipatzeko modukoa da. Ikasleen ia %100a eragin eremutik kanpokoa da, eta hauek eskolatzeko egunero 135 autobus iristen dira Loiura.** Gehienak Bilbo, Getxo, Las Arenas, Txorierrri, Uribe Kosta edo Ezkerraldeetik datoz, baina badira autobusak Durangotik edo Castro Urdialesetik datozenak.

| Ikastetxea              | Ibilbideak |
|-------------------------|------------|
| Ayalde + Munabe         | 46         |
| Lauro ikastola          | 36         |
| Ntra. Sra, de la Merced | 11         |
| Udaneta                 | 42         |
| Gutzira Loiua           | 135        |

Loiuko garraio zerbitzua 2024-2025.

**Denak batuz gero, autobus hauek 10.000km baino gehiago egiten dituzte egunero eta ikasturtea amaitzerako 2.500Tn CO2 baina gehiago isurtzen dute atmosferara.** Ekologikoki jasangarriak ez diren ikastetxe hauek guztiak itunduak direnez, eragin eremutik kanpo dauden ikastetxe batean matrikulatzea ere denon poltsikotik ordaindu behar al dugu?

**Zero kilometroko hezkuntza bermatzen duen bakarra sare publikoa da,** beraz, ekologikoki jasangarria den hezkuntza nahi izanez gero, publiko gehiago eta pribatu gutxiago!

### c. Eragin eremuak

Eragin eremuak onarpen prozesuaren egituratzaileak dira eta ikastetxe batekiko hurbiltasun-irizpide gisa barematzea arautzen dute, eskaera eskaintza baino handiagoa denean.

2023-2024 ikasturterako aldebakarrez egindako eragin eremuen antolaketa berria mahai gainean jarri zuen Hezkuntza Sailak. Familiak, udalek edo langileen ordezkariak sartutako helegiteek ez zuten banaketa berri honetan aldaketarik ondorioztatu. Eragin eremu berria egiteko arrazoiak, zaurgarritasun tasa hobeto kalkulatzeko omen da, nahiz eta benetako arrazoiak hurrengo beste hauek izan:

1. Eskaintza publikorik ez duten EAE-ko udalerriak, eskaintza publikoa duten ondoko udalerrien eragin eremuan sartzea inposatu/inposatu da. Hau da, **Loiu, Ibarra, Anoeta, Lazkao, Usurbil, Irura eta Anoeta**, ondoko ikastetxe publikoa duten udalerriekin eragin eremua osatu dute. Horrela, LOMLOEak jasotzen duen moduan, eragin eremu guztietan plaza publikoak bermatzen dira. **Neurri honekin, azken 30 urteetan bezala, eskaintza publikorik gabeko udalerriak izaten jarraituko dugu EAEn.** Jokaldi berdinean, alde batetik LOMLOEak jasotzen duena urratzea saihesten du eta bestetik betikoen pribilegioak mantentzen ditu.
2. Hiriburu eta udalerri handietan eragin eremuak erabat gutxitu dira. Horrela, Donostia eta udalerri handietan (Irún, Barakaldo, Eibar, Basauri, Getxo...) aurrez ezarrita zeuden eragin eremu kopuruak gutxitu eta era berdinean handitu egin dira. Donostian lehen 13 eragin eremu zituen eta orain 4 (3 + Zubieta auzoa). Neurri honekin, **itunpeko ikastetxe handien arrantza esparrua handitzeaz gain, ikastetxe publikoen auzo erreferentzialtasuna galduko da, eta hala km 0 edo etxetik gertuko eskolatzea oztopatuko da.** Hiru eragin eremuek, bakoitzak 5 km-ko luzera dute batez beste eta kasu askotan ikasleak adin txikietatik garraiatuak izatera kondenatuko dituzte. Barakaldo ere, 5 eragin eremu izatetik bakarra izatera pasako da, ondorio berdinekin.

**Eragin eremuak handitzea, logika pribatizatzaile batetik soilik ulertu daiteke, segregazioa, urruneko eskolatzea edo eskola publikoen itxiera ekarri baitezake.**

Banaketa berri honek salatu beharreko egoera batzuk ere erakutsi dizkigu. Tolosaldean edo Loiu eskaintza pribatua muturreraino eraman duten eragin eremuak aurki ditzakegu edo araudiaren aplikazioa bera okerra izan den eragin eremuak aurki ditzakegu, Usurbilen edo Olaberrian gertatu den bezala.

| Eragin eremua | Herriak   | Ikastetxeak                               | Eskaintza HH3 2022-23 | %     |
|---------------|-----------|-------------------------------------------|-----------------------|-------|
| G12           | Anoeta    |                                           |                       |       |
|               | Belauntza |                                           |                       |       |
|               | Elduain   | CEIP Félix Samaniego HLHI                 | 46                    | 14,33 |
|               | Gaztelu   | CPEIPS Anoeta Ikastola HLBHIP             | 25                    |       |
|               | Hernialde | CPEIP Irura Ikastola HLHIP                | 25                    |       |
|               | Ibarra    | CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP | 100                   |       |
|               | Irura     | CPEIP Herrikide Jesuitinak HLHIP          | 75                    |       |
|               | Leaburu   | CPEIPS Uzturpe Ikastola HLBHIP            | 50                    |       |
|               | Tolosa    |                                           | 275                   | 85,67 |

#### G12 eragin eremua.

Tolosaldeako eragin eremuaren kasua berezia da. Hezkuntza aldetik, Loiurekin batera, EAE guztian dagoen eskualde pribatizatuena da. Eskaintza pribatua soilik duten (ez publikorik) 3 herri ditugu hemen, Ibarra, Anoeta eta Irura. Herri hauek, beraiek bakarrik, ezin dute eragin eremu bat sortu ikastetxe publikorik ez dutelako. Hezkuntza Sailak, egoera honen aurrean eta legea ez urratzeko, hiru aukera ditu: herri hauetako ikastetxe pribatuak publikatu (hau gauzatzea ikastetxeek soilik eska dezakete), herri hauetan eskola publiko bat zabaldu, edo egin duena, eskaintza publikoa duen aldameneko herri batekin (Tolosa) eragin eremua osatu. Horrela, gaur egun, 2 urteko mailan, G12 eragin eremuak soilik %14,33ko eskaintza publikoa du, eta eskualde horretako familia gehienak kuota bat ordaintzera behartuta daude beraien semeak herrian ikasi nahi izanez gero. Bestela, ikasleak garraiatu beharko dituzte beraien bizilekutik urrun.

Eskola txikia duen Olaberrian eman den kasua beste bat da, hemen, Onarpen Agindua bera urratzen da, indarrean dagoen Onarpen Aginduko 4. artikulua honako hau jasotzen baitu:

*Eskola Txikietan, eskaintzaren zehaztapena kokatuta dauden herriaren eskarira egokituko da, eta eragin-eremua herri hori izango da.*

Proposamen berrian, ikastetxe publikorik ez duen Lazkaok, G53 eragin eremua osatzen du Olaberriarekin batera. Olaberriak eskola txikia izanda eta 4. artikulua jasotzen duen moduan eragin-eremua Olaberria bera izanik, Lazkaok ezin du eragin-eremu horretan egon. Praktikan agian eraginik ez dauka baina Sailaren eta eragin eremuen gabeziak agerian uzten ditu.

Laburbilduz, **eragin eremu guztietan eskola publiko bat zabaldu beharrean, Hezkuntza Sailak eragin eremuak handitzea erabaki du nahiz eta honek ikasleak garraiatzea behartu.** Horrela, LOMLOEak jaso bezala, eragin eremu bakoitzean eskola publiko bat izatea bermatzen du. Bestalde, eragin eremuak ikastetxe publiko bat baino gehiago jasotzean, hauen fusioa edo itxiera ekar dezake, Sailak adierazitako asmoei bide emanez. Eta bukatzeko, **eragin eremuen handitzeak ikastetxe pribatuen arrantza gunea handiagoa izatea ekartzen du.**



## d. Gaineskaintzaren aurkako neurriak

Lehen aipatu bezala, jaiotza jaitsiera honen aurrean Hezkuntza Sailaren xedea itunpeko ikastetxeak erreskatatzea izan da, eta horretarako hainbat neurri ezarri ditu. Badirudi itunpeko ikastetxeen aldeko jarrera hau berria dela, baina ez da horrela, orain arte ere erraztasun guztiak eman baitizkie merkatu logika honetan lehiatu ahal izateko. Itunpeko ikastetxeen gain eskaintza edo hauen planifikazio neurrigabeari Hezkuntza Sailak mugarik ez jartzea izan daitezke adibide garbienak.

Jaiotza-tasaren beherakada nabaria da EAEko hezkuntza mapan, Haur Hezkuntzako plaza gehiago daude haurrak baino, eta hori da hain zuzen gaineskaintza. **Gure erkidegoan, planifikazioa itunpeko ikastetxeentzat egiten da** eta jaiotze tasaren proportzio berdinean hauen eskaintza jaisten ez den heinean, ikaspostu hutsak sortzeko makina bihurtuko da. Horretaz gain, **gaineskaintza izateak desorekak eragiten ditu eta eskola-segregazioari hauspoa ematen dio**. Planifikazio eta eskaintza jakin baten alde egitea erabaki politikoa denez, eskola-segregazioa ere erabaki politiko bat dela esan dezakegu, beraz, Hezkuntza Sailak gaineskaintza horren ondorio negatiboak arintzeko politikak aplikatzen ez dituen bitartean, ikasleen arteko bereizketak gora egingo du. Hezkuntza Sailak ukatu egin du segregazioa larriagotuko denik, onarpen dekretu berriak horri aurre egiteko neurriak jasotzen dituelako, eskaintza egokituz eta ikasleak era orekatuan birbanatuz. Herri mailara jaisten bagara, gaineskaintzaren adibide argienetako bat Zarautz izan daiteke.

| Zarautz 2024-2025<br>(2 urteko gela) | Eskaintza  | Eskaintzaren<br>% | Eskaria    | Gain<br>eskaintza | Gain<br>eskaintzaren % |
|--------------------------------------|------------|-------------------|------------|-------------------|------------------------|
| Publikoa                             |            |                   |            |                   |                        |
| Oroiketa                             | 72         | 32,43             | 50         | 22                | 30,56                  |
| <b>Guztira publikoa</b>              | <b>72</b>  | <b>32,43</b>      | <b>50</b>  | <b>22</b>         | <b>30,56</b>           |
| Pribatua                             |            |                   |            |                   |                        |
| Antoniano                            | 50         | 22,52             | 22         | 28                | 56,00                  |
| La Salle                             | 50         | 22,52             | 21         | 29                | 58,00                  |
| Salvatore Mitxelena Ikastola         | 50         | 22,52             | 37         | 13                | 26,00                  |
| <b>Guztira pribatua</b>              | <b>150</b> | <b>67,57</b>      | <b>80</b>  | <b>70</b>         | <b>46,67</b>           |
| <b>Guztira Zarautz</b>               | <b>222</b> | <b>100,00</b>     | <b>130</b> | <b>92</b>         | <b>41,44</b>           |

### Zarauzko 2 urteko gela eskaintza eta eskaria 2024-2025.

Zarautzek aurten, Haur Hezkuntzako 2 urteko haurrentzat 222 ikasposturen eskaintza zeukan eta soilik 130 matrikulatu direnez, 92 plaza hutsik geratu dira, guztiaren %41,44a. Itunpeko ikastetxeetako eskaintzaren %46,67a eta publikoko %30,56a eman gabe geratu dira. Aipagarria da, soilik pribatuek zuten eskaintzarekin (150) Zarautz osoko 2 urteko haurrak eskolatu zitezkeela (130).

Baina Zarauzko kasua ez da bakarra, EAEn, beste hainbat herrietan fenomeno hau errepikatzen baita. Hurrengo taulak gaineskaintza nabarmena duten udalerriez gain, pribatuko eskaintzak udalerriko eskari osoa jasoko luketen kasuak azaltzen dira. **la kasu guztietan pribatuko eskaintza publikokoaren bikoitza edo gehiago da.**

| Udalerria        | Jaiotzak<br>2022 | Eskaintza |          |         | Gain<br>eskaintza | Eskaintza % |          |
|------------------|------------------|-----------|----------|---------|-------------------|-------------|----------|
|                  |                  | Publikoa  | Pribatua | Guztira |                   | Publikoa    | Pribatua |
| Araba            |                  |           |          |         |                   |             |          |
| Amurrio          | 72               | 54        | 75       | 129     | 79,17             | 42          | 58       |
| Ribera Baja      | 5                | 18        | 25       | 43      | 760,00            | 42          | 58       |
| Bizkaia          |                  |           |          |         |                   |             |          |
| Amorebieta       | 120              | 72        | 172      | 244     | 103,33            | 30          | 70       |
| Bermeo           | 99               | 36        | 100      | 136     | 37,37             | 26          | 74       |
| Durango          | 194              | 72        | 183      | 255     | 31,44             | 28          | 72       |
| Gernika-Lumo     | 110              | 54        | 118      | 172     | 56,36             | 31          | 69       |
| Leioa            | 225              | 126       | 291      | 417     | 85,33             | 30          | 70       |
| Loiu             | 11               | 0         | 318*     | 318*    | 2.790,91          | 0           | 100      |
| Valle de Trapaga | 56               | 38        | 75       | 113     | 101,79            | 34          | 66       |
| Zamudio          | 17               | 18        | 100      | 118     | 594,12            | 15          | 85       |
| Gipuzkoa         |                  |           |          |         |                   |             |          |
| Andoain          | 74               | 18        | 104      | 122     | 64,86             | 15          | 85       |
| Oñati            | 86               | 36        | 75       | 111     | 29,07             | 32          | 68       |
| Orio             | 51               | 18        | 50       | 68      | 33,33             | 26          | 74       |
| Pasaia           | 79               | 36        | 91       | 127     | 60,76             | 28          | 72       |
| Tolosa           | 141              | 54        | 172      | 226     | 60,28             | 24          | 76       |
| Zarautz          | 131              | 72        | 150      | 222     | 69,47             | 32          | 68       |

EAE 2 urteko gela gaineskaitza 2024-2025.

\* Loiuren kasuan 3 urteko gelaz ari gara.

Kasu guztiak salagarriak baldin badira ere, Loiu eta Zamudioko kasuek aparteko aipamena merezi dute. **Loiun 2022 urtean 11 haur jaio ziren eta aurten 3 urteko gelan matrikulatzeko duten eskaintza 318 ikaspostuena izan da. Baina norentzat?** Nola liteke 11 haurrentzat itundutako 318 ikaspostu eskaintzea? Honaxe erantzuna: Loiun dauden bost ikastetxe pribatuetara egunero garraiatzen dituzten 6.500 ikasle joaten dira Bilbo edo Getxo bezalako udalerrietatik. Zein da Loiuko bost ikastetxe elitista hauei 3 urteko gelatan doako 318 ikaspostuen eskaintza emateko arrazoia? Ze behar asetzen dituzte? Zergatik dira itunduak? Gizarte kohesioan erantzukizunik ez al zaie eskatu behar? Hurbiltasuneko hezkuntza bultzatzea hau al da? Jasangarritasuna non dago? Loiuko adibidea are eta larriagoa da eskaintza publikorik ez baitago. Aipagarria da, Loiun jaiotako haur gehienak Sondikan dagoen ikastetxe publikora joaten direla. **Beraien borondatez udalerrietik kanpo ikasi nahi dutenak ikasi dezatela, baina %100ean beraiek ordaindu dezatela!**

Zamudion ere antzeko zerbait gertatzen da, 17 haurrentzat 118 ikaspostu baitaude, hauetariko 100 pribatuak.

Baina zeintzuk izan dira gain eskaintza ekiditeko Hezkuntza Sailak hartu dituen neurriak? Eskaintza eskariari egokitzeko itunpeko ikastetxeetako gelak itxi beharrean, eskaintza mantendu du baina kontakizuna aldatuz. *“Eskaintza eskaria izango da”* mantra behin eta berriro errepikatu dute, baina horrekin zer esan nahi dute? Demagun ikastetxe batek 75eko eskaintza duela 2 urteko

mailan, baina soilik 40 eskari jaso dituela. Lehen gain eskaintza 35 ikaspostukoa zela esango genukeen, baina orain eskaintza eskaria denez, gaireskaintza zero izango da, eskaintza 40koa baita. Honen ondorioz, hurrengo ikasturtean ikastetxe horrek 2 urteko gelan 40ko eskaintza izango du? Ez! Berrero ere hasierako eskaintza 75ekoa izango da. Eta horrela gutxienez 2028-2029 ikasturtera arte, 2022-2023 ikasturtean ezarri zen eskaintzak 6 urteko indarraldia baitu. Oso larria eta salagarria da, aurreikusten zen jaiotza jaitzierarekin 2022-2028 eskaintza bere horretan mantentzea, inongo doikuntzarik egin gabe. Kontakizuna aldatzeak ez du gaireskaintza ekiditen!

## Soilik eskaintza pribatuko herriak

Euskal hezkuntza sistemaren anomalia bat da hainbat herrietan dagoen eskaintza soilik pribatua izatea eta migratu ez duten familiek kuota bat ordaindu ezean, haurrak eskaintza publikoa duen aldameneko herrira joan behar izatea. Hurbiltasuneko hezkuntza diruaren truke soilik, ez du ez hanka ez buru. LOMLOEk jasotzen duen bezala, Hezkuntza Sailarentzat herri horietan ikastetxe publikoak zabaltzea aukera bat ez den bitartean, **herri horietako ikasle zaurgarriak aldameneko herrietara garraiatuko dituzte, beraien bizileku eta jolaslekuetatik urrun.**

Ezin da aipatu gabe utzi, **kasu askotan, ikastetxe pribatu horien eraikinak udalarenak direla, publikoak alegia.** Eraikina herriarena, finantzaketa publikoa, eta hala ere herritarrek kuota bat ordaindu behar dute umeak herrian ikasi nahi badute. Eta kuotak ordaindu nahi ez dituzten familiek beraien haur garraiatuak autobus geltokira eraman beharko dituzte goizero, beraien herria ez den batera ikastera joateko.

| Udalerria | Jaiotzak 2022 | Itunpeko eskaintza | Eskaria 2024-2025 |
|-----------|---------------|--------------------|-------------------|
| Araba     |               |                    |                   |
| La Puebla | 7             | 18                 | 7                 |
| Iruraiz   | 4             | 13                 | 3                 |
| Bizkaia   |               |                    |                   |
| Loiu      | 11            | 318                | *                 |
| Gipuzkoa  |               |                    |                   |
| Anoeta    | 17            | 25                 | 16                |
| Ibarra    | 21            | 25                 | 14                |
| Irura     | 24            | 25                 | 15                |
| Lazkao    | 55            | 75                 | 58                |
| Usurbil   | 43            | 50                 | 45                |


Soilik eskaintza pribatua duten udalerriak.

## Azpieskaintza

| Udalerria    | Jaiotzak<br>2022 | Eskaintza 2024-2025 |          |         | Infra<br>eskaintza |
|--------------|------------------|---------------------|----------|---------|--------------------|
|              |                  | Publikoa            | Pribatua | Guztira |                    |
| Bizkaia      |                  |                     |          |         |                    |
| Alonsotegi   | 24               | 18                  | 0        | 18      | %-25,00            |
| Arrigorriaga | 86               | 36                  | 0        | 36      | %-58,14            |
| Derio        | 48               | 36                  | 0        | 36      | %-25,00            |
| Getxo        | 445              | 207                 | 223      | 430     | %-3,37             |
| Urduliz      | 52               | 36                  | 0        | 36      | %-30,77            |
| Gipuzkoa     |                  |                     |          |         |                    |
| Astigarraga  | 92               | 90                  | 0        | 90      | %-2,17             |
| Lasarte oria | 135              | 96                  | 0        | 96      | %-28,89            |

Taulan azaltzen diren herrietan azpieskaintza dago, hau da, herrian jaiotzen diren haur guztientzako ikasposturik ez dago. Zergatik ematen da fenomeno hau? Lasarte eta Astigarragako kasuetan, herri horietako familia batzuek beraien seme-alabak Donostiako ikastetxe pribatuetara eramateko hautua egin dutelako eta Getxoko kasuan, Loiu edo Lezama bezalako herrietara bidaltzen dituztelako. Udalerri hauetara, goizero, kanpoko ikastetxe pribatuetako gero eta autobus gehiago iristen dira.

**Herri horietan gela publiko gehiago zabaltzea beharko lirateke, herriko haur guztiak jasotzeko adina.** Hala ere familiek beraien haurrak ikastera herritik kanpora bidali nahi izanez gero, aukera hori mugatu egin beharko litzateke. **Hezkuntza Sailak ezin du urruntasuneko hezkuntza ahalbidetu eta mugarik gabe haur garraiatu hauentzat doako ikaspostuak beraien herritik kanpo eskaini.**



## 6. Itunak arautzen dituen 1987ko dekretuaren urraketak



Itunpeko ikastetxeen aldeko beste jarrera garbi bat, itunak arautzen dituen 1987ko dekretuaren urraketan aurrean Hezkuntza Sailak izan duen konplizitatea izan daiteke.

Askotan aipatu da itunpeko ikastetxeek beraien betebeharrak ez dituztela betetzen eta Hezkuntza Sailak kontrol lanak egin beharrean, kasu askotan, derrigorrezko konplizea bihurtzen dela. Indarrean dagoen 1987ko dekretuak jasotzen dituen artikuluen urraketak aipatuko ditugu, sakontasunean sartu gabe, dagoeneko honetaz asko hitz egin baita. Hala ere, pertsona oro dekretu hau irakurtzera animatzen dugu, jasotzen duena eta errealitateak zerikusirik ez duela ikusteko.

Artikuluen irudiak gaztelerazkoak dira eta euskarazko bertsioak ere kopiatu ditugu; hala, ulermena hobe izango dela espero dugu.

### Ikasle zaurgarriari arreta

12. artikulua jasotzen duena aipatzekoa da, “eskolatze premiak asetzen dituzten edo egoera sozioekonomiko ahulean dauden biztanleak artatzen dituzten ikastetxeek ituntzeko lehentasuna izango dute.”

*artículo 12.*– Tendrán prioridad para acceder a la concertación los centros que satisfagan necesidades de escolarización o atiendan a poblaciones socioeconómicamente desfavorecidas.

Hau zen ituna arautzen duen dekretuaren benetako espiritua, erabaki politikoak tarteko, urteen poderioz desitxuratu eta kontrako bidea hartu duena. **Gaur egun ituntze unibertsala dugu eta zaurgarriak jasotzen ez dituzten ikastetxeek, jasotzen dituztenak bezain beste eskubide eta laguntza dituzte.** Zoriturrez, matrikula aldetik arazo gehien dituzten ikastetxeak bigarren hauek dira.

### Euskara

14. artikulua euskara eta hizkuntza horretako hezkuntza eskaria eskolatze premia bezala jasotzen dela dio.

*Artículo 14.*– A los efectos de lo dispuesto en el artículo doce las derivadas del proceso de normalización lingüística del euskera y de la demanda educativa en esta lengua en los términos de la programación establecida por el Consejo Escolar de Euskadi, se considerarán necesidades de escolarización.

Irakaskuntza A ereduan ematen duten ikastetxeek, euskara aldetik behintzat, ez dute eskolatze premiarik asetzen. Baina lehen aipatu dugun bezala, **ituntze unibertsala dugunez, A ereduko ikastetxeek D ereduko eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte.**

## Doakoa

Nahiz eta zioan edo 6. artikuluan ere horrela jasota egon, ikasketak doakoak izan behar dutela 32. artikulua jasotzen du: " hezkuntza-itunak, itunpeko ikastetxearen titularra, haren xede diren irakaskuntzak erabat doan ematera behartzen du".

*Artículo 32.*– El concierto educativo obliga al titular del centro concertado a impartir de forma totalmente gratuita las enseñanzas objeto del mismo, de acuerdo con los planes de estudios y normas académicas vigentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hori horrela izan arren, badakigu itunpeko ikastetxeen jokabidea nolakoa den, baita Hezkuntza Sailarena ere.

## Laikoa

37. artikulua jasotzen duen moduan: "ikastetxeetako praktika konfesional guztiak borondatezkoak izango dira."

*Artículo 37.*– Toda práctica confesional en los centros tendrá carácter voluntario.

*Badaki ze ikastetxe motara joan den esateak ez du balio, Kristau Eskola izan arren, ikasleak erlijioa ez jasotzea eskatu dezake. Zoritxarrez, orokorrean ikastetxe hauek erlijioaren ordeko ikasgairik ez dute eskaintzen.*

## Ikasleen onarpen gardena

41. artikulua: "Itunpeko ikastetxeek unean-unean EAEko ikastetxe publikoetarako ezarritako araubideari jarraiki onartu beharko dituzte ikasleak.

Hasieran onartutako ikasleak arrazoirik gabe baztertzea edo diskriminatzea aurreko paragrafoan xedatutakoa ez betetzetzat joko da."

*Artículo 41.*– Los centros concertados deberán realizar la admisión de alumnos ajustándose al régimen establecido en cada momento para los centros públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La exclusión injustificada o discriminatoria de los alumnos inicialmente admitidos será considerada incumplimiento de lo dispuesto en el párrafo anterior.

**Matrikulazio leihatila bakarrak soilik bermatuko luke ikasleen onarpen prozesua gardena izatea.** Gaur egun badakigu itunpeko ikastetxe jakin batzuetako idazkaritzek egiten duten galbahe lana, gustuko ikasleak jasoz eta gustuko ez dituztenak beste ikastetxeetara bideratuz. Kuotek eta ikastetxeen ekintza osagarrien kostuek ere galbahe lan handia egiten dute.

## Irakasleen kontratazioa

47 eta 54 bitarteko artikuluetan irakasleen kontratazioaren nondik norakoa zehazten da. Artikulu guztiak garrantzitsuak izan arren, bat aipatzekotan 51. artikulua aipatuko dugu, itunpeko ikastetxe askok sistematikoki betetzen ez dutena baita. Artikulu honek laburbilduz horrela dio: “lanpostua betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen arteko hautaketa, eskola kontseiluak ezarritako hautaketa-irizpideen arabera egingo da, eta irizpide horiek, funtsean, **merezimendu eta gaitasun** printzipioei jarraituko diete”.

*Artículo 51.*— La selección entre los solicitantes que cumplan con los requisitos exigidos por la legislación vigente para desempeñar la plaza convocada, se realizará según los criterios de selección establecidos por el consejo escolar de acuerdo con el titular del centro y que atenderán básicamente a los principios de mérito y capacidad.

**Badakigu itunpeko ikastetxe gehienek kontratazioak nahierara egiten dituztela**, beraien kordako edo intereseke langileak kontratatuz, merezimendu eta gaitasun printzipioei muzin eginez.

**Denok ezagutzen ditugu aurreko betebeharrei muzin egiten dieten ikastetxeak. Ikasle zaurgarriak ez diete arretarik ematen, ez dute euskaraz erakusten, ez dira doakoak eta laikoak ere ez, ikasleen onarpena ez da gardena eta irakasleen kontratazioa zer esanik ez.**

EAEko Opus Deiko ikastetxeetan datorren urtetik aurrera, ituna jaso nahi badute, sexuz bereizteari uko egingo diotela irakurri dugu prentsan. Eta beste betebeharrak guztiak?

Nahiz eta sistematikoki beren betebeharrak bete ez, ikastetxe hauek itunduak dira eta urtero jasotzen duten diru kopurua ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. 2024-2025 ikasturtean Opuseko ikastetxeen artean 15M € banatu dira soilik itun eta 0-3ko dirulaguntzetan. Baina zergatik ez zaizkie dirulaguntzak eteten? Zergatik ez du Hezkuntza Sailak bere ikuskaritza lana betetzen? Ez al dute ituna bertan behera uzteko tresnarik? Noski baietz, baina gogo eta borondate politikorik ez.

Hala ere bada Opuseko ikastetxeen artean besteekiko bereizten den bat eta hori Gaztelueta da. Hauek Lehen Hezkuntzako 6. maila arte ez dute sexuaren arabera segregatzen, baina Bigarren Hezkuntzatik aurrera bai. Hori dela eta, Lehen Hezkuntzara arteko laguntzak jasotzen dituzte eta hurrengoei uko egiten diete, zehazki 2,3M €ri. Ze hezkuntza proiektu mota da sexuaren arabera bereizteagatik dirutza horri uko egiten diona? Nola itundu dezake Hezkuntza Sailak holako jokabidea duen ikastetxe bat?

| Ikastetxea               | Itunak              |
|--------------------------|---------------------|
| Bizkaia                  |                     |
| Gaztelueta               | 2.963.010 €         |
| Gaztelueta (0-3)         | 154.734 €           |
| Ayalde                   | 5.110.353 €         |
| Ayalde (0-3)             | 82.986 €            |
| Munabe                   | 2.210.603 €         |
| Haurkabi Artaza (0-3)    | 128.571 €           |
| Haurkabi Barakaldo (0-3) | 124.665 €           |
| UMEDI                    | 561.850 €           |
| UMEDI (0-3)              | 139.975 €           |
| Gipuzkoa                 |                     |
| Erain                    | 1.215.819 €         |
| Erain-Txiki              | 338.915 €           |
| Erain-Txiki (0-3)        | 70.206 €            |
| Eskibel                  | 1.977.168 €         |
| Eskibel (0-3)            | 76.310 €            |
| <b>Guztira</b>           | <b>15.155.165 €</b> |

OPUS DEI. Itun eta 0-3ko diru laguntzak 2024-2025.

Sistematikoki betebeharrei uko egiten dieten ikastetxeei neurri zuzentzaileak ezartzeko tresnak baditu Hezkuntza Sailak, hau da, **itunak berritzeko baldintza batzuk bete behar dira eta horiek bete ezean ituna deuseztatzen da. Siple eta erraz.**

## Itunak berritzea

*Artículo 75.*– En la renovación de los conciertos se aplicarán, en su caso, los criterios de preferencia establecidos en los artículos 12 y siguientes, atendiendo además al grado de cumplimiento de las obligaciones asumidas en virtud del concierto.

75. artikulua: “itunak berritzean, hala badagokio, 12. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako lehentasun irizpideak aplikatuko dira, itunaren ondorioz hartutako **betebeharren betetze maila kontuan hartuta**”.

Hezkuntza Sailaren ardura da ikastetxe batek itunaren ondorioz hartutako betebeharrak betetzen dituen ala ez ikuskatzea. Horretarako daude ikuskariak. Hauek behar adina informazio eska diezaiekete ikastetxeei asebetetze maila neurtu ahal izateko eta jasotzen den emaitzaren arabera neurriak hartu. **Tamalez, ikuskatze lan tinkorik ez da gauzatu urte luzeetan, eta ondorioz, ituna berritzea ia-ia automatikoa eta orokorra da.**

## Ituna deuseztatzea

Ituna eteteko hainbat aukera daude eta hauek 83. artikulua jasotzen ditu. Guri interesatzen zaizkigunak c) eta d) puntuak dira. “c) Itunpeko ikastetxean itundu ahal izateko baldintzak betetzen ez badira.” eta “d) Alderdi kontratugileek beren gain hartutako betebeharrak modu larrian ez betetzea.”

Aurreko puntu hauek 84. artikulutik aurrera garatzen dira eta 88. artikuluan amaitzen dira esaldi zorrotz eta birrintzaile honekin: “Ez betetze larriak ituna deuseztatzea ekarriko du”.

**Gaurko egunez aurreko betebeharrak ez betetzeagatik itunik gabe geratu den ikastetxerik ez dugu ezagutzen eta ez dugu ezagutuko. Arlo honi dagokion ikuskapen lanak bazter batean uztea erabaki politikoa da eta agintean daudenak aldatu ezean, ikastetxe hauek lasai bere arau-haustea egiten jarraitu ahal izango dute.**

Itunpeko ikastetxeen gaitasunak, lege urraketen aurrean Hezkuntza Sailaren jarrerak, modulu ekonomikoaren igoerak, ratioen jaitzierak edo eragin eremuen antolaketa ez dira nahikoak izan familiengan eragina izan eta hauek itunpeko ikastetxeen aldeko hautua egiteko. Publikoaren aldeko plataformen, familien eta langileen esfortzuagatik eskola publikoaren aldeko olatua inoiz baino indartsuagoa da eta aurrera jarraituko dugu! Hezkuntza Sailak, pribatizazioaren bidean, bestelako saiakerak egingo dituela jakitun, tinko eutsiko diogu gureari.

**GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!**



## 7. Bibliografia



EUSTAT: <https://www.eustat.eus/indice.html>

Hezkuntza estatistikak: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-estatistikak/>

Euskal Eskola Kontseilua <https://consejoescolardeeuskadi.hezkuntza.net/eu/informe-ensenanza>

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/buscarAvanzada.do?idioma=es&tipoBusqueda=2>

EHU Unibertsitaterako sarbide probak: <https://www.ehu.eus/eu/web/unibertsitaterako-sarbidea/sarbide-probak/sarbide-proben-estatistikak>

Legegunea: <https://www.legegunea.euskadi.eus/lege-informazioa/webleg00-container/eu/>

Hezkuntza ikastetxe pribatuak: <https://www.euskadi.eus/informazioa/itunpeko-ikastetxe-pribatuak/web01-a2hikast/eu/>

INE: <https://www.ine.es/>

Consejo Escolar del Estado: <https://www.educacionfpydeportes.gob.es/mc/cee/publicaciones/informes-del-sistema-educativo.html>

**STEILAS** barne dokumentuak: <https://steilas.eus/>



Lined area for writing, consisting of 20 horizontal lines.





**HEZKUNTZA  
EZ DAGO SALGAI  
II**

---

Erreskatea